

Memoria20

Berdintasunerako Zerbitzua
Alkatetzaren eta Erakunde Harremanen Saila

HARa!



Portadaren irudia: “HARA! IV. Plana”, HABEMUSSTUDIO-ren diseinua, eta “HARA! Agenda”, Sra. Milton-en diseinua, IV. Planaren irudietatik abiatuta.

00

AURKIBIDEA

AURKIBIDEA

AURKIBIDEA.....	3
SARRERA	5
1. ILDOA: BERDINTASUNA UDAL-GOBERNUAREN EREDUAN	8
1.XE: GASTEIZKO UDALAK BERDINTASUNAREKIN DUEN KONPROMISOA ZEHAZTEA.....	9
2.XE: UDALEKO LANGILEAK BERDINTASUNAREN ARLOAN PIXKANAKA GAITZEA	10
3.XE: AURRERA EGITEA GENERO-IKUSPEGIA PLANGINTZA ESTRATEGIKOETAN EGINTZA ETA ADMINISTRAZIOAREN EGINTZA ETA PROZEDURA KOMUNETAN SARTZEKO ORDUAN	13
4.XE: UDAL BARRUKO, UDALEN ARTEKO ETA ERAKUNDEEN ARTEKO KOORDINAZIOA ETA LANKIDETZA SUSTATZEA	16
5.XE: UDALEKO BERDINTASUN-POLITIKA INDARTUKO DUTEN PARTE HARTZEKO GUNEAK BULTZATZEA.....	17
2. ILDOA: ZAINKETEN EKONOMIA FEMINISTA	19
1.XE: ZAINKETEN HORNIDURA- ETA HARRERA-EREDUA BIDEZKOAGOA ETA JASANGARRIAGOA IZAN DADIN LAGUNTZEA	20
3. ILDOA: AHALDUNTZE FEMINISTA	22
1.XE: EMAKUMEEN AHALDUNTZE PERTSONAL ETA KOLEKTIBOARI LAGUNTZEA	23
2.XE: LGTBI PERTSONEN AHALDUNTZE PERTSONAL ETA KOLEKTIBOARI LAGUNTZEA	27
3.XE: GASTEIZEN BERDINTASUNERANTZ ABIATZEAREKIN DAGOEN GIZARTE- KONPROMISOA BABESTEIA	29
4. ILDOA: INDARKERIA MATXISTARIK GABEKO HIRIA.....	33
1.XE: INDARKERIA MATXISTAREN PREBENTZIOARI, SENTSIBILIZAZIOARI ETA SALAKETARI LAGUNTZEA	34
2.XE: ERAKUNDEAREN BARRUKO ETA ERAKUNDEEN ARTEKO KOORDINAZIOA HOBETZEA	40
3.XE: INDARKERIA MATXISTAREN BIKTIMAK AITORTZEA ETA BEREN ERREPARAZIOARI LAGUNTZEA.....	41
ZERBITZUAREN ORGANIGRAMA.....	42
ZERBITZUAREN LABURPEN EKONOMIKOA 2020.....	44

01

SARRERA

SARRERA

Gasteizko Udalak 18 urte baino gehiagoko ibilbidea du tokiko berdintasun-politikak diseinatzen, garatzen eta ebaluatzen. Konpromiso horren ondorioz, berdintasunaren alorrean, plangintza orokorreko bost tresna onartu dira orain arte:

1. Gasteizko Emakumeentzako Ekintza Positiboko I. Plana (1999-2003)
2. [Vitoria-Gasteizko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako II. Udal Plana \(2009-2011\)](#)
3. [Vitoria-Gasteizko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. Udal Plana \(2014-2015\)](#)
4. [Hara! Vitoria-Gasteizko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako IV. Udal Plana 2018-2021](#) eta [Hara! Agenda \(2018-2021\)](#)

Gasteizko Udaleko Berdintasun Zerbitzuaren xedea da **udal-erakunde**an, honen egituran zein pertsonengan aldaketak eragitea, eremu publikoan eta pribatuan genero-berdintasuna bultzatzeko. Berdintasun hori udal-politika publiko baten bidez lortu behar da, sexu- eta genero-aniztasuna barneratzeko bidean aurrera egingo duena, giza eskubideen esparruaren barruan.

Horretarako, hauek dira Zerbitzuaren printzipio bideratzaileak:

PARADIGMA FEMINISTA

IV. Plana ikuspegi teoriko eta praktikoa feministatik abiatzen da. Paradigma feminista da emakumeek historian egin duten ekarpenik garrantzitsuenak, eta feminismoaren eragin handiena duten gizarteetan sortzen dira genero-harreman berdinezale eta bidezkoenak. Mugimendu feminista aktiboago dagoen tokietan daude politika publiko aitzindari eta aurreratuenak.

BEHAR ADINAKO ARRETA

Behar adinako arretak zera dakar, Vitoria-Gasteizko Udalak Hara! IV Planak eta Hara! Agendak jasotzen dituzten ekintzak gauzatzeko konpromisoa eta ardura hartu behar dituela, jarrera aktiboa agertuz, eta horretarako beharrezkoak diren baliabideak sortuz eta eskura jarritz.

GENERO-ETA INTERSEKZIO-IKUSPEGIA

Udalaren berdintasunerako politika publikoen subjektu politikoa hedatu da, arau heterosexista eta sistema heteropatriarkalaren eraginez diskriminatuak diren pertsonenak. Halaber, intersekzio-ikuspegia hartzen du, eta kontuan hartzen ditu generoaren intersekzioak desberdinkeraren beste iturri batzuekin, hala nola aniztasun funtzionalarekin, etniarekin, arrazalazioarekin, adinarekin, maila sozioekonomikoarekin, jatorriarekin, sexu- eta genero-aniztasunarekin, egoera administratiboarekin eta abarrekin.

PARTE-HARTZEA ETA ERAGINA

Lortu nahi den ereduak praktika edo lan-metodologiatzat hartu behar du parte-hartzea, eta ez unean-uneko prozesua izango balitz bezala. Gobernagarritasun demokratikoagoaren zati izan behar du parte-hartzeak, eta, horretarako, parte hartzeko ereduak benetan abiarazteko behar diren prozesuak, tresnak, espazioak eta baliabideak eman behar dira. Hau da, berdintasun-politikek eta agenda publikoek metodologia modura sartu behar dute parte-hartzea, politika eta agenda horiek diseinatzeko, abiarazteko eta horien jarraipena nahi ebaluazioa egiteko orduan.

GARDENTASUNA

Berdintasunaren arloan egiten denaren gaineko kontu ematea da, politikak ebaluatuz eta emaitzen berri emanez. Gardentasuna emateko, Udalak barne-mailan eta herritarren artean jakinarazi behar du zer-nolako

aurrerapenak egiten diren Vitoria-Gasteizen berdintasunaren arloan, eta diru publikoak lan horretan nola laguntzen duen azaldu behar du.

BERDINTASUN-POLITIKEN IRAUNKORTASUNA

Berdintasun-politiken iraunkortasunak konpromiso politikoa behar du, eta hori zehaztu daiteke berdintasun-arloko araudi bat onartzearekin, sailarteko egitura politiko eta teknikoak dituen genero-arkitekturarekin edo berdintasun-gaietan espezializatuta dauden pertsonen osatutako Berdintasunerako Zerbitzu sendo batekin. Iraunkortasunerako, berdintasun-politiken kantitatearen gaintik jarri behar da horien kalitatea, eta arreta berezia jarri behar zaio halako edukiari, politika genero eraldatzaileak izan daitezen, nola aurrekontu-eta baliabide-hornidurari, benetan gauzatu daitezkeen politikak izan daitezen.

KUDEAKETA-SISTEMA

2020an *Hara! Vitoria-Gasteizko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako IV. Udal Planaren eta Hara! Agendaren* bigarren biurtekoak hasten dira, eta Berdintasun Zerbitzuak abian jartzen du esku hartzen diren lau ildo estrategikoetako bakoitzean programatutako jardueren jarraipen-sistema.

2020ko memoria hau oinarrizko tresna bihurtu da bigarren biurtekoaren garapena eta ezarpena aztertzeko, berdintasunaren arloan egindakoari eta hori gauzatzeko moduari buruzko informazioa ematen baitu.

Kudeaketa-sistemaren helburu nagusia informazio-sistema iraunkor bat diseinatzea da, jardueren betetze-maila, lortzen ari diren aurrerapenak eta horiek gauzatzeko sortu diren zailtasunak identifikatu ahal izateko. Jarraipen-txostenak *Hara! IV.* planaren ebaluazio orokorrerako abiapuntu izango dira, eta Berdintasun Zerbitzuak programazio horren emaitzen eta eraginaren ikuspegi orokorra izan dezan ahalbidetuko dute.

02

1. ILDOA: BERDINTASUNA UDAL-GOBERNUAREN EREDUAN

1. ILDOA: BERDINTASUNA UDAL-GOBERNUAREN EREDUAN

Genero-zeharkakotasuna gobernu-ereduan ezartzearekin zerikusia duen lan guztia (antolakuntza-kultura, giza baliabideak, lan-prozesu eta -prozedurak, langileen gaikuntza, koordinazioa, lankidetzeta eta parte-hartzea) sartzen da ildo honetan.

1.XE: GASTEIZKO UDALAK BERDINTASUNAREKIN DUEN KONPROMISOA ZEHAZTEA

1.1.1. XO: ASKOTARIKO AGENTEEI BERDINTASUN-ARLOAN HARTURIKO KONPROMISOAK EZAGUTARAZTEA

Udal-langileen artean zabaltzea eta sozializatzea honako liburuxka: *Instrukzioa: generoa eta euskararen erabilera egokia. Irudi inklusiboak. Genero ikuspuntua estatistika eta ikerketan* .

2018rako planifikatutako jarduera hau 2019an gauzatu zen, hizkuntzaren erabilera ez-sexistarako instrukzio bat eginez: [Instrukzioa: Generoa eta euskararen erabilera egokia. Irudi inklusiboak. Genero ikuspuntua estatistika eta ikerketan Vitoria-Gasteizko udalean](#). Liburuxkaren edizioa eta inprimaketa 2020ko urtarrilean amaitu da (1.500 kopia).

Instrukzio honek bertan jasotako irizpideak eta jarraibideak txertatzeko eskatzen die sail zerbitzu eta unitate guztiei, bai eta erakunde autonomoei, udal-enpresei eta mendeko erakundeei ere. Gainera, erabilera eskuragarriagoa izateko, bi gida azkar egin dira [gazelaniaz](#) eta [euskaraz](#), aipatutako dokumentuen edukia laburbiltzeko. Lau dokumentu horiek modu digitalean daude eskuragarri udalaren webgunean: www.vitoria-gasteiz.org/igualdad eta, horrezaz gain, paperean banatu dira —liburuxka moduan eta "Udal Gaiak Bilduma" formatuan— udal-teknikari guztiei, politikariei, erakunde autonomoei eta udal-enpresei.

Hara! IV. Planaren eta Agendaren bigarren biurtekorako (2020-2021) programazioa honako hauei aurkeztea: Batzorde Politikoa, udal-zerbitzu eta -sailak, Berdintasuna Elkargunea eta herritarrak.

Bigarren biurtekoaren programazioa Batzorde Politikoa aurkeztu zen 2020ko urriaren 19an, ekarpenak jasotzeko epea emanez eta horietako batzuk dokumentuan sartuz. Sartu ez direnak behar bezala justifikatu dira. Berdintasunerako elkargunean ere aurkeztu da (2020ko azaroaren 19an), inplikaturako sailalara bidalita eta udalaren webgunean zabalduta.

1.1.2. XO: TOKIKO BERDINTASUN-POLITIKAK IRAUNKORRAK EGITEA, HORIEN FINKAPENA ETA ERAGINA INDARTUZ

Berdintasunerako Zerbitzua Hara! IV. Plana eta Agenda ezartzeko prozesuan buru izan dadin eta programazioan jasotzen diren konpromisoak eraginkorrak izan daitezen behar dituen baliabide ekonomikoak eta giza baliabideak ematea.

2020an, Hara! IV. Plana eta Agenda ezartzeko aurrekontu nahikoa eta egokia eman zitzaion Berdintasunerako Zerbitzuari. Guztira, 555.000 euro esleitu dira, gehi langileentzako zenbatekoa. Aurrekontu horrekin, berdintasunerako beste agente bat sartu da zerbitzura.

Hara! IV. Planaren eta Agendaren lehenengo biurtekoaren (2018-2019) jarraipen- eta ebaluazio-txostena egin, argitaratu eta inplikaturata dauden sailekin partekatzea.

Gazte Enplegu Planaren bidez, informazio-sistema iraunkor bat diseinatzea helburu duen teknikari bat kontratatu da, Hara! IV. Plana eta Agenda programaren lehen biurtekoaren (2018-2019) jarraipena eta ebaluazioa egiteko, politika eta esku-hartze publiko horien emaitzak eta eragina kalibratu ahal izateko.

Pandemiaren ondoriozko osasun-egoerak baldintzatzen du [Lehen Biurtekoaren \(2018-2019\) Jarraipen eta Ebaluazio Txostena](#) egiteko prozesua, eta, horrexegatik erabaki da jarraipena egitea berdintasun-teknikariekin egindako bileretan eta plana ezartzen parte hartzen duten sail/zerbitzuen artean informazioa biltzeko banatutako fitxetan oinarrituta.

Hara! Agenda Gasteizko Udalaren berdintasunerako politiketan sexu- eta genero-aniztasuna txertatzeko 2020-2021 bigarren biurtekoako jarduerak diseinatzea.

Lehen biurtekoaren azterketa-, jarraipen- eta ebaluazio-lanaren ondorioz, [programazio](#) hau egin zen, aurretik hasitako estrategiari jarraipena emanez. Estrategia hori, oro har, sexu- eta genero-aniztasuna zeharkakotzea da, Hara! Egituratzten duten lau ildoetan. IV. Plana eta arlo honetan jarraitu beharreko bidea zehaztea, ikuspegi feminista interseksionala duten proiektuen bidez, asistentzialismotik, biktimizaziotik eta patologizaziotik urrun.

1.1.3. XO: UDALAK BERDINTASUNAREKIN DUEN KONPROMISOA IKUSARAZTEA

Udalak genero-berdintasunarekiko duen konpromisoa adierazpen instituzionalen bidez adieraztea, horien artean, Martxoak 8, Maiatzak 17 eta Azaroak 25.

Urtero bezala, 2020an adierazpen instituzionalak egin, onartu eta zabaldu ziren, [martxoaren 8a](#), [maiatzaren 17a](#) eta [azaroaren 25a](#) ospatzeko, udalak genero-berdintasunarekiko duen konpromisoa berretsiz.

Ikusgune-Gasteizko LGTBIfobiaren kontrako Behatokiaren egoitza birgaitu eta atontzea.

Adostutako epea gehiago ez gainditzeko, Gasteizko Udalak erabaki zuen Ikusguneri behin-behineko lokal bat uztea. Azaroan, Berdintasun Zerbitzuarekin batera bulegoko altzarien, etxetresna elektrikoen eta ikus-entzunezko ekipoen hornidura eta instalazioa kudeatu ondoren, Ikusgune hasi zen lanean Pintore kaleko 23. zenbakian dagoen lonja batean. Aldi berean, behin betiko lokala birgaitzeko obrak (Pintore kalea, 47) nahiko aurreratuta daude urte bukaeran. Ikusgunek lan egiteko egoitza fisiko bat izateak aukera emango dio, azkenik, Gasteizko beste gizarte-eragile batzuekin aliantzak ezartzeari eta baterako lana egitearekin zerikusia duten lan-ildo eta jardueri heltzeko.

Europako Udalerrien eta Eskualdeen Kontseiluan (CMRE) parte hartzea, Udalak berdintasun-gaietan sustatzen dituen jarduera onak zabaltzeko eta ikusgarri egiteko.

Gasteizko Udaleko Berdintasunerako Zerbitzuak aktiboki parte hartzen du Emakumeen eta Gizonen Tokiko Bizitzako Berdintasunerako Europako Itunaren Behatokian. 2020an, "Cities and Regions defending human rights" hitzaldian parte hartu zuen, udalak berdintasunaren arloan egindako lana zabalduz eta Europako beste udalderri batzuekin jardunbide egokiak trukatu.

2.XE: UDALEKO LANGILEAK BERDINTASUNAREN ARLOAN PIXKANAKA GAITZEA

1.2.1. XO: UDALEKO LANGILEAK BERDINTASUNEAN PRESTATZEA

Udal-langileei hurrengo gai honi buruzko prestakuntza ematea: *Zainketen ekonomia feminista eta bizitzaren jasangarritasuna.*

Ekonomia feministak dio ezin zaiola eutsi kapital-metaketan eta etekin pribatu handiena lortzean oinarritzen diren gizartearen funtzionamenduari. Horregatik, kapital-metaketaren helburua alboratzea proposatzen da, bizitza eta pertsonak politiken erdigunean jartzeko, zainketa-lanak ikusaraziz eta baloratuz, eta birbanaketa-, hornidura- eta harrera-eredu bidezkoagoa eta iraunkorragoa bultzatuz.

Gasteizko Udalak, arlo horretan duen erantzukizuna bere gain hartuta, teknikari eta politikarientzako bi prestakuntza bultzatu zituen 2020an. Helburua prestakuntza- eta truke-espazio bat sustatzea zen, erakundeek bizitza jasangarriak eta bidezkoak bermatzeko bultzatzen dituzketen tresna praktikoak eta jarduketan adibideak partekatuz. Mugarik Gabe elkarteak dinamizatu zituen talde horiek, XXK kolektiboaren laguntzarekin.

Teknikarientzako prestakuntza, *Bizitzaren jasangarritasuna zainketatik* izenburupean, ekainaren 3an eta 17an izan zen – 3 orduko bi saio bakoitzean –. Hara! planaren ("Zainketen Ekonomia Feminista" bigarren ildo estrategikoa garatzeko) oinarriak ezarriko zituen prestakuntza-hausturaketa bat egin nahi zen. Osasun-larrialdiko egoera dela eta, saioak ez ziren aurrez aurre egin, baizik eta Zoom plataformaren bidez. Besteak beste Berdintasun, Bizikidetzaren eta Aniztasun, Gizarte Politika, Hezkuntza eta Plangintza zerbitzuetako 33 pertsonak (guztiak emakumeak) parte hartu zuten. Emaizta gisa, mintegiaren bigarren saioan egindako talde-lanaren laburpena jasotzen da. Dokumentu hau, [Tokiko Politika Publikoetatik Bizimodu Jasangarrietarantz](#) gidarekin batera, parte-hartzaileekin partekatzen da.

Bestalde, eta *Bizitzaren jasangarritasuna zainketatik* mintegiaren ondoren, urriaren 1ean, Zoom plataformaren bidez, hirugarren saio bat eskaini zitzaion politikariei. Saio haren helburua da udaleko politikariek alde aurreko saio horietan jorrotutako gogoeta nagusien berri izatea, bai eta planaren bigarren lerroa garatzeko aukerak bateratzea ere. Bi orduko bilera hartan, alderdi politiko desberdinetako 9 pertsonak parte hartu zuten (8 emakume eta gizon batek).

Politikariei hurrengo gai honi buruzko prestakuntza ematea: *Indarkeria matxistaren tratamendua. Erantzun publikoa eta komunikazio instituzionala.*

Udaletan Vitoria-Gasteizkoa lehenetakoa izan da prestatzen eta urtero berrikusten erantzun publikorako eta komunikazio instituzionalerako jarraibideak jasotzen dituen protokoloa, udalerrian gertatutako indarkeria matxistaren egoerak direla eta. Erantzun publikoaren jarraibideak berrikusteko asmoz, Udaleko Berdintasun Zerbitzuak bi prestakuntza- eta eztabaida-saio antolatu zituen helburu nagusi bati heltzeko: erantzun publikoaren esanahia eta xedea ulertzea eta barneratzea.

Horretarako, saioetan, Udalaren erantzun publikoaren bilakaera aztertu zen; hartara, atzeman ziren aktibazioan, erantzuteko denbora-tarteetan eta emaitzetan izandako gabeziak, erronkak edo desadostasunak. Azkenik, 2020ko errealitate eta eztabaidetara egokitzeko, protokoloa aldatzeko proposamenak mahai gainean jarri ziren.

Prestakuntza-saioak Sortzen aholkularitza-enpresako Norma Vázquezek eman zituen, eta, politikarientzat izan arren, udaleko hainbat sailerako zerbitzuetako buru eta zuzendari batzuek ere parte hartu zuten. Guztira, 25 pertsonak parte hartu zuten (19 emakume eta 6 gizon) eta prozesuaren balorazio positiboa egin zuten.

Prestakuntza ematea, *JABETUZ - Emakumeen kontrako indarkeriaren biktimak artatzen dituzten profesionalentzako prestakuntza-programaren baitan.*

"Erakundeen barruko eta erakundeen arteko koordinazio-mekanismoak berrikustea eta indartzea, indarkeria matxistari arretoa emateko" helburua bete nahian Gizarte Politiken Sailak eta Berdintasunerako eta Udaltzaingo Zerbitzuek berrikusi, eguneratu eta egokitzea proposatu zuten *Etxeko eta genero-indarkeriaren biktima diren emakumeekin esku hartzeko, horiek bideratzeko eta horien jarraipena egiteko II. udal-protokoloa.*

Protokoloaren berrikuspen horren harira, emakumeen aurkako indarkeriaren biktimak artatzen dituzten profesionalentzako prestakuntza funtsezko zutabeetako bat zen; halaber, prestakuntza beharrezkotzat jo zen arreta arloko adostasun-ildoak indartzeko, eta indarkeriatik bizirik ateratako emakume nahiz biktimen ahalduntze-printzipioa giza-eskubideen ikuspegitik indartzeko.

Ildo beretik, *Jabetuz - emakumeen aurkako indarkeriaren biktimak artatzen dituzten profesionalentzako prestakuntza-programa* izeneko oinarrizko ikastaroa udal-langileei baino ez zitzaien eskaini, Emakunderekin lankidetzan, eta Genero Indarkeriaren Aurkako Estatu- Itunak toki-erakundeei helarazitako funtsen bidez. Ikastaro horren bidez, oinarrizko ezagutzak —baina ezinbestekoak— eskaintzeaz gain, etorkizuneko prestakuntza-planteamendu zehatzagoen eta espezifikagoen oinarriak finkatzeko balio izan zuen. Hartara, Emakunde ziurtatutako 85 orduko on-line ikastaro horretan 6 unitateren bidez, gai horretan sakontzen joateko aukera ematen duten edukiak eman ziren.

Bestalde, 15 orduko iraupena duten prestakuntza-unitate bakoitza garatzeko (5. unitatea izan ezik, 10 ordukoa baita), arlo horretan adituak diren profesionalak kontratatu ziren. Profesionalok modu birtualean aurrera eskaini zuten irakaskuntza edukiak emanez, unitatearen jarraipena eginez, eztabaida-foroa moderatuz eta ebaluazio-lanak zuzenduz. Ikastaro honek ibilbide luzea duen arren, lehenengo aldiz eskaini zaie erakunde bakar baten langileentzat soilik, Gasteizko udal langileentzat, hain zuzen ere.

Guztira 108 pertsonak parte hartu zuten prestakuntzan (86 emakume, 21 gizon eta 1 ez bitarra) eta ikastaroa oso ondo baloratu zuten. Era berean, langile batzuek eskatu dute Jabetuz Aurreratua eskaintzea beren prestakuntzarekin jarraitu ahal izateko.

Udaleko langileei prestakuntza ematea honako arlo honetan: *Sexu-aniztasuna: sexua, generoa, identitatea.*

Sexu-aniztasuna: sexua, generoa, identitatea izeneko prestakuntza-ikastaroa bultzatu zuten Gasteizko Udaleko Gizarte Politiken, Adinekoen eta Haurren Sailak, eta Alkatetzaren eta Erakunde Harremanen Sailak —Berdintasun Zerbitzuaren bidez—, UPV/EHUrekin batera. Ikastaro hori eman zen indarkeria matxistaren aurrean arreta emateko eta koordinaziorako protokoloa berrikusi eta eguneratzeko Berdintasunerako Zerbitzua garatzen ari den ebaluazioaren testuinguruan.

Ikastaroaren helburua zen arlo horretako oinarrizko ezagutzak transmititzea sexu- eta genero-aniztasunaren ikuspegia politika publikoetan txertatzeko, baita indarkeria LGTBIfobikoari aurrea hartu eta arreta emateko ere. Hala, ikastaro honek Jabetuz osatzen du sexu eta genero aniztasunaren ikuspegitik.

Ikastaroa online izan zen, 35 ordukoa eta part-hartzaileek UPV/EHUko ziurtagiria jaso zuten. .6 unitatetan banatuta zegoen, gaien ibilbide luzea duten adituek emanak eta dinamizatuak hala nola: Miquel Misé, Alba Pons Rabasa, Lucas Platero Méndez, Noemí Parra Abaunza eta Gerard Coll Planas.

Izena emateko orduan lehentasuna eman zitzaien Jabetuz egin zutenei eta indarkeria matxistari aurre egin dioten biktimak artatzen dituzten langileei. Hala ere, gerora ikastaroa egiteko aukera eman zitzaien gainerako udal langileei, baita Udalak eskaintzen dituen baliabide espezifikoetan lan egiten duten pertsoneri ere, 104 laguneko taldea osatu arte (86 emakume, 15 gizon eta 1 ez bitarra).

Udal langileei sexu- eta genero-aniztasunaren inguruko prestakuntza ematea: 1. Oinarrizko lantegia, 2. Sakontzeko lantegia, 3. Politikarientzako informazio-pilula, 4.Oinarrizko ikastaro osagarria.

Prestakuntza-ekintza hauek 2020ko martxorako programatuak zeuden baina atzeratu egin ziren COVID-19k eragindako osasun-krisiaren ondorioz. Hala, planifikatutako lau jarraibideetatik, bi baino ez ziren izan 2020an (oinarrizko tailerra eta sakontze-tailerra), biak abenduan. Antolatzeko denbora faltagatik, politikarientzako informazio-pilula –sexu eta genero aniztasunari buruzko online prestakuntza, bi ordukoa– 2021eko martxora atzeratu da.

Miquel Missé soziologoa eta ekintzaile transa, sexu- eta genero-aniztasunari buruzko politika publikoen arloko ikertzaile eta prestatzailea izan zen prestakuntza guztiak emateaz arduratu zena.

1. Oinarrizko lantegia

Abenduan, Giza Baliabideen Saileko prestakuntza-taldearekin batera, sexu- eta genero-aniztasunari buruzko online hastapen ikastaroaren bost orduko beste edizio bat egin genuen. Bertan, Miquel Missé soziologo eta ekintzaile transa sexu- eta genero-aniztasunaren eta LGBTI akronimoaren esparru teorikoa bere konplexutasunean jorratu zuen, bere baitan hartzen dituen errealitate guztiei erreparatuz. Era berean, esparru horretan tokiko politikak garatzearen garrantziaz hausnartu zuen.

Prestakuntza hau honako udal langile hauentzako bideratuta zegoen: genero eta sexu aniztasunari buruzko ikuspegia txertatzea haien zeregin teknikoa izanez gero, eta haien lanpostua ez egotea hautaketa-prozesu irekiren baten menpe. Guztira 28 pertsonak parte hartu zuten (19 emakume eta 9 gizon).

2. Sakontzeko lantegia

Abenduan, Giza Baliabideen Saileko prestakuntza-taldearekin lankidetzan, sexu- eta genero-aniztasunari buruzko sakontze-ikastaroaren lehen edizioa egin genuen, online, bost ordukoa. Bertan, Miquel Missé azaldu zuen nola lotzen diren, teorian eta praktikan, politika publikoak sexu-orientazioarekin eta genero-identitatearekin.

Prestakuntza hau honako udal langile hauentzako bideratuta zegoen: sexu- eta genero-aniztasunaren sarrerako prestakuntzaren bi edizioetako batean jada parte hartu izandakoak, baldin eta haien zeregin teknikoetan sexu- eta genero-aniztasunari buruzko ikuspegia sartzeari badagokio, eta haien lanpostua ez badago hautaketa-prozesu irekien zain. Guztira 22 pertsonak parte hartu zuten (19 emakume eta 3 gizon).

Berdintasun Zerbitzuko talde teknikoa indartzea, politika publikoetan sexu- eta genero-aniztasunari buruzko prestakuntza espezializatua emanez.

Ekimen honen abiapuntua 2019an hautemandako premia bat da, hau da, Berdintasun Zerbitzuko taldeari laguntzea sexu- eta genero-aniztasuna udal-politikan txertatzeko orduan sortzen zaizkion dilema edo zalantzatan. *Hara! Agenda-ren* idazkaritza teknikoak izan zuen lanaren ardura -Udane HerFer-, eta bi fase izan zituen: banakakoa (apirilean) eta taldekoa (maiatzean). Azken horrek bi ordu eta erdiko hiru hausnarketa-saio izan zituen, eta honako helburu hauek izan zituen:

- Konfiantza-gune bat sortzea, berdintasun-politiketan aniztasun sexu-generikoa txertatzen denean praktikan zer gertatzen den ikertu ahal izateko.
- Dauden zailtasun edo zalantzak taldean konpontzea.
- Udaleko beste zerbitzu, elkarte edo erakunde batzuen aurrean gure jarrerak —subjektu politikoaren hedapena— defendatzeko behar diren tresnak eskuratzea.
- Berdintasun Zerbitzuko diskurtso komuna eraikitzea.

Parte-hartzaileek prozesu txiki hori eskertu zuten; izan ere, horri esker, hausnartu ahal izan zuten bakoitzak nola sartzan zuen sexu- eta genero-aniztasuna koordinatzen zituen proiektuetan, zer erresistentzia zituen, zer zailtasunekin egiten zuen topo, zer inkoherentzia zeuden zerbitzu gisa eta zein izan zitezkeen konponbideak eta hobekuntzak.

3.XE: GENERO-IKUSPEGIA PLANGINTZA ESTRATEGIKOETAN ETA ADMINISTRAZIOAREN EGINTZA ETA PROZEDURA KOMUNETAN SARTZEKO ORDUAN AURRERA EGITEA.

1.3.1. XO: BERDINTASUNERAKO ZERBITZUAREN KANPO-INFORMAZIOA ETA -KOMUNIKAZIOA SENDOTZEA

Berdintasun Zerbitzuaren kanpo-komunikazioa kudeatzea (sare sozialak, aldizkaria, webgunea, intraneta, materialak, bideoteka eta abar), genero-berdintasunaren inguruan egiten den lana ezagutarazteko xedez.

Berdintasun Zerbitzuak kanpoko komunikabide hauek ditu: **webgunea**, **buletin elektronikoak** eta sare sozialak (**Facebook**, **Twitter**, **Instagram** eta **Youtube**). Barne komunikabidea, aldiz,, **Intraneteko** albisten atala.

Webguneari dagokionez, Hara! Planaren ildo estrategikoekin lotutako eduki estatikoen diseinua hobetzeko lan egiten dugu eta elikatzen dugu interes publikoa duten gure jarduerekin. Gainera, ondorengo arloen edukiak eguneratzen ditugu: Jabekuntza Feministarako Eskola; indarkeria matxista prebenitzeko Izan Nonahi estrategia eta oroitzapenezko daten kanpainak (Martxoaren 8a, Maiatzaren 17a eta Azaroaren 25a). Era berean, 2020an, sexu-orientazioa eta genero-identitatea atala garatu zen, Berdintasun Zerbitzuak sexu- eta genero-aniztasunaren arloan egindako lan guztia biltzen duena. Gainera, Jabekuntza Feministarako Eskolari buruzko Ohiko Galderak atala berrikusi eta zabaldu genuen. Azkenik, Bideoteka atala eguneratu dugu, baita zerbitzuaren **Youtubeko kanalera** bideratzen duen esteka.. Kanal horretan 128 bideo daude eskegita (azken urte honetako 11); batez ere Jabekuntza Eskolako hitzaldien grabazioak dira eta, neurri txikiagoan, eskola horretan egiten diren tailer batzuk laburbiltzen dituzten bideo laburrak/pilulak.

Sareei dagokienez, 2020an gora egin du **Twitterreko** jarraitzaileen kopuruak, **@VG Berdintasunaren profila**k 1.306 izatetik (2020ko otsaila) 1.434 izatera (2021eko urtarrila) igaro baita. Era berean, **Facebookeko** orrialdea (**Berdintasuna VG**) 810etik (2020ko otsaila) 864ra (2021eko urtarrila) igo zen; orrialdearen jarraitzaileei dagokienez, 742tik 757ra igo ziren aldi horretan.

Bestalde, gazteek Facebook eta Twitter sare sozialak oso gutxi erabiltzen dituztenez, eta indarkeria matxista prebenitzeko Libre Izan Nonahi strategiaren helburu den xede-publikoa denez, Instagramen kontu bat sortzera behartu gintuen. Sare hori 2020ko azaroaren 12an hasi zen erabiltzen (orduan argitaratu zen lehen aldiz), eta, Zerbitzuko gainerako sareak ez bezala, estrategia horren publizitatea egiteko baino ez da erabiltzen. Hiru sare sozialetatik Instagram da interakzio gehien lortu dituen, eta, beraz, sare sozial hori elikatzen jarraitzearen aldeko apustua egiten da. Urtea amaitzean, **@libreizannonahi** kontuak 86 jarraitzaile zituen, 40 jarraituak eta 13 argitalpen.

Azkenik, **aldizkari elektronikoei** dagokienez, 2020an guztira 10 argitaratu ziren. Gaur egun, 2.209 pertsona eta erakunde harpidedun daude (iaz baino 18 gutxiago), eta hemen kontsulta daitezke: <https://v-g.eus/3nMXPQZ>

Berdintasunerako Zerbitzuaren webeko «Ohiko galderak» atalerako testuak egitea, Zerbitzuaren argitalpenetan oinarrituta: **Desirak Plazara. Gasteizko LGTBI herritarren errealitateei buruzko diagnostikoa eta Hara! Gasteizko Udalaren berdintasunerako politikan sexu- eta genero-aniztasuna txertatzeko agenda.**

Ekintza honek bi helburu ditu. Alde batetik, webguneko *Ohiko Galderak* atala aprobetxatzea herritarrak sentibilizatzeko sexu- eta genero-aniztasunaren alde eta sexu-orientazioaren eta genero-identitatearen ondoriozko indarkeriaren aurka (LGTBIfobia). Bestetik, Berdintasun Zerbitzuaren web-orria kalitatezko edukiez hornitzen jarraitzea.

Atal honetako informazioa Zerbitzuak editatutako argitalpenetatik atera da, batez ere **Hara! Agenda** eta **Desirak Plazara**, eta hiru lerro ditu: 1. Gasteizko Udalak sexu- eta genero-aniztasuna txertatzen duten berdintasun-politikak sustatzeko dituen arrazoiak. 2. Sexu- eta genero-aniztasunari buruzko teoriarik erabili ohi diren terminoen eta adierazpenen esanahia, ikuspegi feminista izanda. 3. Matxismoaren eta LGTBIfobiaren arteko harremana. Webgunean argitaratzeko dago oraindik.

1.3.2. XO: INFORMAZIO-BILKETAN SEXU ETA GENEROAREN ARABERAKO SAILKAPENAREN ERABILERA INKLUSIBOA TXERTATZEA

Sexu-generoari buruzko hirugarren laukitxoaren erabilera finkatzea Libre Izan Nonahi! indarkeria matxista prebenitzeko Estrategiaren ebaluazio galdetegiaren baita identifikatzen diren beste proiektu batzuetan ere. Era berean, udaleko zerbitzu eta sailei aholkua ematea hirugarren laukitxoari buruz informazioa eskatzen dutenean.

Jarduera hau [Libre Izan Nonahi! indarkeria matxista prebenitzeko Estrategiariaren](#) baitakoa da; hartara, ohiko "Sexua: emakumea/gizona", laukitxoaren ordez "Sexua/Generoa" laukitxo erabiltzen da. Horren helburua da sexu eta genero-aniztasuna kontuan hartzea eta ikusmolde binarioetatik aldentzea. Hala, binarioak ez diren pertsonak kontuan hartzen dira, emakume eta gizonez gain. UPV/EHUK erabiltzen duen forma izateaz gain, Berdintasunerako Zerbitzutik irizten diogu herritarrekiko errespetuzkoena eta inklusiboena dela.

Hirugarren laukitxo hori erabili zen prebentzio eta sentsibilizazio talde ibiltariak 2020ko azken hiruhilekoko kale-irteeretan lan egin zuen pertsonen datuak jasotzerakoan. Horrez gain, Gasteizko hainbat ikastetxetako DLH, DBH eta DBHoko ikasleei *MaitEzMindu* 40 lantegi eskaini zitzaion. Ikasle partehartzaileen datuak jasotzeko galdetegian "pertsona ez-binarioa" laukitxo erabili zen. 40 lantegietan 812 ikaslek parte hartu zuen. Horietako bi ikasle pertsona ez-binarioa bezala identifikatu ziren.

COVID-19a dela eta, edukierak kontrolatzeko beharraren ondorioz, Estrategiari dagozkion jarduera batzuetan ezin izan da sexu-genero laukitxo erabili partehartzaileen datuak jasotzerakoan; esaterako, azaroaren 20ko La Furia rap abeslariaren kontzertuan eta hurrengo egunean egin zen *Musika indarkeria matxistaren aurrian* mahai-inguruan. Arrazoia hauxe izan zen: udal-jardueretan izena emateko erabili ohi den sistemak, MAEK, pertsonen ohiko "sexua: emakumea/gizona" laukitxo baino ez du jasotzen.

Sexu-generoaren araberako sailkapena modu inklusiboan erabiltzea justifikatzeko dokumentu bat idaztea. Dokumentu hau oinarria izango da laguntza behar duten udal-langileei aholku emateko.

Genero-berdintasunerako politika publikoen subjektua zabaltzeko lanean, Berdintasunerako Zerbitzuak sexu-genero kategoria modu barneratzailean biltzea sustatzen du; hau da, hirugarren laukitxoaren erabilera bultzatu nahi du herritarrek erabiltzen dituzten dokumentuetan (eskaerak, instantziak, formularioak, erreklamazioak, etab.), baita Gasteizko Udalaren barneko dokumentuetan ere.

Berdintasunerako Zerbitzuak dokumentu hau prestatu zuen Udalaren zerbitzu eta sailei hirugarren laukitxoaren erabilerari buruzko azalpen egokia emateko. Une honetan dokumentu hau zabaldu gabe dago.

1.3.4. XO: KONTRATAZIOAN, DIRU-LAGUNTZETAN ETA HITZARMENETAN BERDINTASUN-IRIZPIDEAK EZARTZEA

Udalaren diru-laguntzetan eta hitzarmenetan berdintasunari buruzko klausulak sartzeko prozesuan aholku ematea.

Berdintasun Zerbitzuan, hala eskatzen duten udal zerbitzuei eta sailei aholkularitza eskaintzen diegu, udal dirulaguntzetan eta hitzarmenetan berdintasun-klausulak txertatzeko prozesuan. Hala ere, 2020an ez da ildo horretako eskaerarik jaso.

1.3.5. XO: ZEHARKAKO PLAN ETA PROIEKTU SEKTORIALAK BERDINTASUN-GAIETAN INDARTZEA

Udal-zerbitzu eta -sailei genero-berdintasunaren arloko aholku eta laguntza espezializatua ematea.

2020an, hainbat zerbitzuek eta sailek zerbitzuari egindako genero-berdintasunaren arloko kontsultei erantzun zaie. Hona hemen horietako batzuk:

- Herritarren Segurtasunerako Sailak balorazio bat eskatu zion Berdintasun Zerbitzuari, **Gaylespol elkarteak Udaltzaingoiari eskainitako prestakuntza baten inguruan**; hain zuzen ere, sexu- eta genero-aniztasuna eta sexu-orientazioagatik edo genero-identitateagatik erasoak jasan dituzten LGTBI pertsonen eman behar zaien arreta jorratzen zuena.
- 2015etik geroztik, Berdintasun Zerbitzuak **Udalaren Osasun-mahaian** parte hartzen du genero-ikuspegia txertatzeko Gasteizko herritarren osasuna sustatzeko jardueretan. Zehazki, 2020an bi bileratan parte hartu du: otsailaren 18an eta abenduaren 16an.

- Berdintasun Zerbitzuak parte hartzen du Hautzaro eta Senitarte Zerbitzuarekin lankidetzaz, **Haur eta Nerabeentzako II. Planaren (HANUP)** inplementazioan, bere eskumenekoak diren eta HARA! IV. planarekin lerrotatuta dauden jarduerak abian jarritz:
 - **Indarkeria matxistaren prebentzio integralerako** sailen arteko estrategia definitzea eta abian jartzea: esparru teoriko eta kontzeptual komuna definitzea; esku-hartzeko eta prebentziorako lehentasunak identifikatzea.
 - Haurrekin eta nerabeekin zerikusia duten **HARA! Agendako** ekintzak abian jartzea. Agenda honek sexu- eta genero-aniztasunaren arloko lehentasunezko jarduerak biltzen ditu.

Horrez gain, 2020an HANUP-ren sailarteko organo teknikoaren bi bileratan parte hartu du zerbitzuak. Azkenik, Hautzaro eta Senitarte Zerbitzuak bidalitako zenbait dokumentu genero-ikuspegitik aztertu dira, hizkuntza barne.
- Garapenean Laguntzeko Zerbitzuak laguntza eskatu zuen sailaren **dirulaguntzen deialdiaren baitakoak diren eta ikuspegi feminista duten proiektuak baloratzeko**. Berdintasunerako teknikari batek Garapenean Laguntzeko Zerbitzuarekin hiru bilera egin zituen (abuztuaren 18an eta urriaren 1ean eta 5ean).
- Hezkuntza Zerbitzuak bi aldiz eskatu zuen aholkularitza. Lehenik eta behin, bilera bat eskatu zuen urriaren 8rako, haur-eskoletan detektatutako **indarkeria matxistaren arreta eta prebentzioa lantzeko prestatazaileei inguruko aholkua jasotzeko**; era berean, urruntze-agindua lortu zuen ama baten kasuaren aurrean jokatzeko aholkularitza eskatu zuen.
- Azkenik, **Gazteria Zerbitzuaren [Erronka Gazteak Plana](#)** prestatzen lagundu du Berdintasun Zerbitzuak. Era berean, **Garapenean Laguntzeko Zerbitzuak** 2020an hasitako hausnarketa-prozesu batean parte hartu du; prozesu horren helburua zen jasotzea bestelako ikuspegi eta errealitateak Gizarte Eraldaketarako Hezkuntza benetan integratzen laguntzeko Gasteizko ikastetxeen hezkuntza-proposamenean. Hausnarketa horren helburua gizartea eraldatzeko etorkizuneko Hezkuntza Estrategiaren lan-ildoak ekitea izan zen.. Estrategia hori gizarte- eta hezkuntza-prozesu ireki eta jarraitua da, herritar kritiko, arduratsu eta konprometitua garatzeko baldintzak sortzen dituen, maila indibidual zein kolektiboan, eta gizarte bidezkoago bat ahalbidetzen duena, ingurumen jasangarri batean

4.XE: UDAL BARRUKO, UDALEN ARTEKO ETA ERAKUNDEEN ARTEKO KOORDINAZIOA ETA LANKIDETZA SUSTATZEA

1.4.1. XO: UDAL BARRUKO, UDALEN ARTEKO ETA ERAKUNDEEN ARTEKO KOORDINAZIOA ETA LANKIDETZA INDARTZEA

Berdintasunerako Zerbitzuak udal barruko koordinazio- eta lankidetzaz-guneetan parte hartzea. Bereziki, emakumeen eta gizonen berdintasunerako Batzorde Parekidean.

Helburu estrategiko horren bidez —eta hori gauzatzeko ekintzen bidez—, udal barruko koordinazio- eta lankidetzaz-espazioak antolatu nahi dira, sailei berdintasunerako udal-estrategian erantzunkide izatea ahalbidetzeko.

2020an honaketa parte hartu dugu: Berdintasunerako Batzorde Parekidean; Osasun Batzordean; Ekonomia Berrien taldean eta beste sail batzuek (Hirigintza, etab.) zerbitzura deitu dituzten bileretan.

Udalen eta erakundeen arteko koordinazio- eta lankidetzaz-guneetan parte hartzea, genero-berdintasunaren arloan baterako estrategiak bultzatzeko.

2020an, Berdintasunaren eta Berdintasunaren aldeko eta Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Euskadiko Udalen Sarearen batzorde eta batzarretan parte hartu du zerbitzuak. Era berean,

Berdintasunerako Zerbitzua Emakunderekin egindako erakundeen arteko proiektuetan egon da, hala nola adineko emakumeen ahalduntzean.

5.XE: UDALAREN BERDINTASUNERAKO POLITIKA INDARTUKO DUTEN PARTE HARTZEKO GUNEA BULTZATZEA

1.5.1. XO: GASTEIZKO HERRITARREKIKO HARREMAN- ETA ELKARRIZKETA-GUNEA SUSTATZEA

Berdintasun Elkargunean aldian behin informatzea HARA! IV. Planaren eta Agendaren inguruan eta bertan kontrastatzea berdintasunerako udal politiken garapenari lotutako alderdi aipagarriak.

2020an, hiru aldiz bildu da Berdintasun Elkargunea:

2020ko ekainaren 10ean, Herritarren Partaidetzaren Zerbitzuak bultzatuta, elkarguneei dei egin zitzaion — horien artean Berdintasunekoari— parte har zezaten Gasteiz suspertzeko partaidetza-prozesu batean. Deialdiaren helburua zen prozesu bat irekitzea herritarrei informatzeko, entzuteko eta proposamenak jasotzeko osasun-krisiak eragindako eta parte hartzeko udal-organoek hautemandako arazoan aurrean.

Guztira, 20 pertsonak parte hartu zuten bi zati izan zituen saioan (horien artean bederatzi elkarte). Lehenengoan, zinegotziak Udalak COVID-19 pandemiaren ondorioz hartutako neurrien berri eman zuen. Bigarrean, bi galdera hauei erantzuten saiatzeko hausnarketa abian jarri zen: zeintzuk dira Elkargunearen jardura-eremuan osasun-krisi honek sortu dituen arazorik garrantzitsuenak? Zer proposamen jotzen ditugu lehentasunezko zat arazo horiei aurre egiteko?.

Saio honetako ekarpen guztiekin eta parte hartzeko gainerako organoetan jasotakoekin batera, [Gizarte Kontseiluaren txostena](#) egin zen. Saioa aurkezteko [bideoa](#) ere kontsulta daiteke.

2020ko azaroaren 19an, Berdintasun Zerbitzuak Elkargunea deitu zuen. Saio hartan honakoak aurkeztu ziren: [Hara! Vitoria-Gasteizko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako IV Planaren eta Hara! Agendaren lehenengo biurtekoaren jarraipen- eta ebaluazio-txostena \(2018-2019\)](#) eta [bigarren biurtekoaren programazioa \(2020-2021\)](#). Horrez gain, Azaroaren 25erako programatutako jardueren berri eman zen. Topaketan, 18 pertsonak parte hartu zuten (x genero), tartean 8 elkartetako ordezkariak.

Azkenik, **abenduaren 22an**, ezohiko deialdian, Elkargunea bildu zen Europa jauregian, 2021eko aurrekontuari ekarpenak egiteko. [Akta orokor](#) honetan Berdintasuna Elkarguneko proposamenak jasotzen dira.

Aurten bilera gutxi egin ditu Elkarguneak, eta pandemia-egoerak zerikusia izango du, ziurrenik. Bilerak aldizka egitea komeni da, eta organo hori sendotzen jarraitzea, udalerrian aktiboak diren erakunde feministen parte-hartzea bultzatuz. Hona hemen Elkargunearen [gai-zerrendak](#), [akordioak](#) eta [aktak](#) kontsultatzeko esteka.

Berdintasuna Elkarguneko ordezkariari laguntzea elkarguneko deialdiak kudeatzen eta antolatzen eta gune horren funtzionamendua antolatzen, bai eta Gizarte Kontseiluan eta Udal Plangintzarako aholku Kontseiluan ere.

2020an, Berdintasuna Elkargunearen ordezkariak Kuentame elkarteko bi bozeramaileraren ardurapean egon zen. Ordezkarien karguak berritu egiten dira kargu hori betetzen dutenek kargua utzi nahi dutenean edo kargua betetzeko boluntario bat dagoenean; ez dago berritzeko epe formalik. Era berean, nahi duen edozein pertsona edo elkarte izan daiteke ordezkari.

Aurten, Berdintasuna Elkargunearen ordezkariak ez dute laguntzarik eskatu Elkarguneko saioak antolatzeko. Berdintasun Zerbitzuak soilik lagundu die gai-zerrendak zehazten. Bestalde, Herritarren Partaidetzaren Zerbitzuarekin lankidetzan aritu dira, Gizarte Kontseiluaren bileren aurreko gai-zerrendak zehazten eta haien metodologia prestatzen.

Era berean, Herritarren Partaidetzaren Zerbitzuak ordezkari-taldea errazteko hainbat material zabaldu eta prestakuntza ematen dute Elkarguneetan, Auzoguneetan eta Gizarte Kontseiluan. Aipamen berezia merezi dute [Elkarguneak eta Auzoguneak antolatzeko eskuliburuak](#) eta HEIk (Herritartasunerako Eskola Irekia) gizarte-trebetasunen arloan bultzatutako prestakuntzek.

03

2. ILDOA: ZAINKETEN EKONOMIA FEMINISTA

2. ILDOA: ZAINKETEN EKONOMIA FEMINISTA

Zainketen eta sektorean enplegatuta dauden emakumeen premiei erantzuteko xedea duen edota erantzunkidetasun- eta kontziliazio-arloan behar diren udal-mekanismoak hobetzearekin eta antolatzearekin zerikusia duen lana sartuko da ildo honetan, ikusgarritasuna emanez bai zainketalanei, bai lan horien horniduran egon behar den erantzunkidetasunari, bai arloko lanari.

1.XE: ZAINKETEN HORNIDURA- ETA HARRERA-EREDUA BIDEZKOAGOA ETA JASANGARRIAGOA IZAN DADIN LAGUNTZEA

2.1.1. XO: ZAINKETAK BIZITZAREN ETA GIZARTE-ANTOLAKUNTZAREN ERDIGUNEKO DIMENTSIO GISA AITORTZEKO BIDEAN AURRERA EGITEA

Gasteizko etxeko eta zainketako emakume langileei laguntzeko estrategia feministaren ezarpenari jarraipena egitea eta babesa ematea.

Idazkaritza Teknikoa kontratatu da *Gasteizko etxeko eta zainketako emakume langileei laguntzeko estrategia feminista* abian jartzeko (estrategia hau 2019ko abenduan zaintza-sareari egitea eskatu zitzaion). Estrategiaren helburu orokorra da etxeko eta zaintzako emakume langileen ahalduntze indibiduala eta kolektiboa erraztea, haien antolamendua sustatuz, haien eskubideak defendatzeko, zeharkatzen dituzten genero, jatorri eta klaseko zapalkuntzen kontzientziatik.

Honako hauek izango lirateke helburu espezifikoak:

- Gasteizko etxeko eta zainketako emakume langileei ahalduntzeko espazio bat eskaintzea, bizi diren sistema heteropatriarkala, arrazista, kolonialista eta kapitalista hausnartu eta zalantzan jartzeko.
- Emakumeei etxeko eta zaintzako langile gisa dituzten eskubideei eta legezko tresnei buruzko informazioa ematea.
- Emakumeengan beren antolaketa eta parte-hartze politiko eta soziala ahalbidetuko dieten gaitasunak sustatzea.
- Etxeko eta Zainketako Lan Sarea indartzea, sektorearen eskubideak aldarrikatzeko erreferente gisa. Etorkizunean abian jarriko den Gasteizko Etxeko eta Zainketako emakume langileen elkartearen sarea sartzeko funtsezko elementua da helburu hori lortzeko.

Prozesuan sortutako alderdi positibo gisa, honako hauek nabarmendu behar dira:

- Asociación de trabajadoras del Hogar y de Cuidados de Álava – Arabako Etxeko Langileen eta Zainketako Langileen Elkartearen (ATHCA-AELZE) eratzea (legezko izapidetze-fasean) eta kolektiboak hartu duen konpromisoa.
- Adostasuna bultzatzen duten interes komunak egotea.
- Kolektiboaren aniztasuna.
- Udalarekin koordinatzea.

Bestalde, prozesua zaildu duten alderdien artean pandemia, kolektiboaren egoera prekariora eta sarea osatzen duten zenbait erakunderen egoera ezegonkorra daude.

Udal langileentzat sortzea zainketen ikuspegi feministari buruzko prestakuntza-, hausnarketa- eta eztabaida-guneak. Helburua da zainketen hornidurari buruzko esparru partekatu bat diseinatzea eta, diseinatutako esparru horretatik abiatuta, zainketek Gasteizen duten egoeraren azterketa hastea.

Udaleko teknikarientzako prestakuntzak (Bizitzaren jasagarritasuna zaintzan oinarrituta), 1.2.1. helburuan aipatu bezala, ahalbidetu zuen zaintzen arloan gogoeta egitea, prestatzea eta esperientziak trukitzea. Emaiza gisa, mintegiaren bigarren saioan egindako talde-lanaren laburpena jasotzen da. Dokumentu hau, [Tokiko Politika Publikoetatik Bizimodu Jasagarrietarantz](#) gidarekin batera, parte-hartzaileekin partekatu da, irizpideak bateratzen eta jarduteko lehentasunezko eremuak identifikatzen joateko.

04

3. ILDOA: AHALDUNTZE FEMINISTA

3. ILDOA: AHALDUNTZE FEMINISTA

Ildo honetan sartuko da ahalduntzea sustatuko duten gune feministak sortzeko eta sendotzeko lan guztia, hausnarketaren, trukearen, prestakuntzaren eta parte-hartzearen bidez. Horrez gain, berdintasuneranzko gizarte-aurrerapena sustatuko da, honako helburu estrategiko hauen bidez.

1.XE: EMAKUMEEN AHALDUNTZE PERTSONAL ETA KOLEKTIBOARI LAGUNTZEA

3.1.1. XO: HAUSNARTZEKO, PRESTATZEKO, PARTE HARTZEKO ETA ERAGITEKO GUNE ETA PROZESU FEMINISTAK SUSTATU ETA FINKATZEA

Gasteizko Jabetze Feministarako Eskola:

- Prestakuntza-estrategia ikuspegi feminista eta interseksionaletik berrikustea, eta aliantza nahiz proposamen berriak identifikatzea.
- Eskolaren azken proiektuei jarraipena ematea: Herri Handi. Herri handiaren hitzaldiak infernu txiki batentzat; Ikerlan feministen lehiaketa; Arte eszenikoak eta #FeminismoMola (haurrei eta 18 urtetik beherako gazteei zuzenduriko prestakuntza-lerroa).
- Eskolaren irudi grafikoa diseinatzea eta urteko egitaraua hedatzea.
- Proiektua kudeatu, ebaluatu eta jarraipena egitea.

Jarraian, 2020-2021 ikasturtean izandako berrikuntzak —hobekuntzak ekarri zituztenak— aipatuko ditugu. 2019-2020 ikasturteko hobekuntzak, 2020ko ekitaldia ere bere baitan hartzen duena, 2019ko memorian azaldu baititugu:

- Eskolak 10. edizioa bete zuen. Programazioak duen liburuxkaren editorialean, feminismoaren hamarkada bat balioan jartzeko aprobetxatu genuen, "Emakumeen eta LGBTBI pertsonen eskubideak zalantzan jartzeak dakarren mehatxuaren aurrean, baita foro publiko jakin batzuetatik egindakoak ere".

- *Herri Handi. Herri handiaren hitzaldiak infernu txiki baterako*. Feminismo dekolonialari eskainitako online ziklo honek planetako beste latitude batzuetan sortutako diskurtsoak eta praktikak ekarri ditu gure eskolara. 2020an honako hitzaldi hauek izan genituen: *Feminismo del fin del mundo* (Fernanda Oliveirarekin, urriaren 6an); *Resistencia ancestral: cuerpos, afectos y rebeldía* (Ochy Curielekin, azaroaren 24an); *El feminismo comunitario para la lucha de los pueblos* (Adriana Guzmanekin, abenduaren 15ean).

- Ikerlan feministen lehiaketa, UPV/EHUko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Masterrarekin lankidetzan. Eskolan ezagutza eta ikerketa feminista sustatzea du helburu, eta, horrela, udalerrian ahalduntze feminista lortzen laguntzea. Lehen edizioan oso harrera ona izan zuen, 31 lan aurkeztu baitziren, kalitate handikoak eta oinarrietan eskatzen denarekin koherenteak. Epaia urrian eman zen, eta puntuazio bera lortu zutenez (8,75/10), bi izan dira saritutako ikerketa-proposamenak:

- *Literatur klub feministen lanaren bisibilizazio saria*, Andrea Perales Fernández de Gamboa eta María Gema Lasarte Leonetena.
- *Nire gorputza gudu-zelai bat da. Feminismoen rola gasteiztar emakume lodien bizipenetan*, Irati García López de Aguilera.

2021eko apirillean, beren ikerlanak Berdintasun Zerbitzuari emango dizkiote eta, 2021eko maiatzean, jendaurrean aurkeztuko dituzte Eskolaren ekitaldi baten bidez.

2020ko ekitaldia ezohikoa izan zen eta ahalegin berezia egin behar izan zen, egunak, ordutegiak, formatua eta inskripzioak etengabe egokitu behar izan baitziren COVID-19 prebenitzeko osasun-neurri aldakorren eskakizunetara.

Martxoaren 13tik maiatzaren amaierara arte, eskolak jarduera utzi zuen, eta, ondorioz, dozenaka jarduera bertan behera geratu ziren, besteak beste, martxoaren 8ko programazioan, maiatzaren 17koan eta

amaierako programazioan jasotakoak. Bestalde, 2020ko irailetik abendura bitartean, jarduerak online egin ziren.

Eskolaren 2019/2020 edizioan, 72 jarduera programatu ziren, horietatik 10 #FeminismoMola prestakuntza-lerroan, 18 urtetik beherakoentzat. Proposamen gehienak izan ziren ikastaroak eta tailerrak (% 61), hitzaldiak (% 18), antzezlan eta dokumentalak (% 8), irakurketa-klubak (% 5), *3ren Arteen* zineforuma (%5) eta inaugurazio- eta amaiera-ekitaldiak (% 3). Aurreikusitako jarduera guztietatik, % 48,3 (30 jarduera) eten ziren, gehienak COVID-19ren ondorioz.

1.380 pertsona bertaratu ziren (1.255 emakume eta 125 gizon), hau da, aurreko ikasturtean baino 305 gutxiago. Kontuan hartuta jardueren % 47 bertan behera geratu zela, badirudi, normaltasunez garatu izan balitz, 2019-2020 Eskolak nabarmen gaudituko zituzkeela aurreko edizioko partaidetza-datuak.

Aurreko edizioetan bezala, nabarmentzekoa da tailerretan parte hartu zutenek adierazi zutela asebetetze-maila handia eta, azpimarratzekoa, trebatzaileei ematen zaien balorazio altua (5,8/6). Informazio zehatzagoa nahi izanez gero, ikus [Eskolaren memoria 2019-2020](#).

#FeminismoMola

Guztira 108 ume edo gaztek parte hartu zuten Eskolako prestakuntza-lerro honetako jardueretan. Ikasturte honetako partaidetza datua aurreko ikasturtekoa baino askoz handiagoa izan zen (123 pertsona). Gainera, kontuan hartu behar da bertan behera utzi behar izan zirela jarduera irekiak eta horiek direla jende gehien biltzen dituztenak.

Bertaratutako pertsona gehienak neskatzat identifikatu zuten haien burua (% 90), ondoren mutilak (% 6) eta, azkenik, ez-binarioak (% 4). Parte-hartze handiena izan zuen adin-tartea 14-16 urtekoa izan zen (% 52); ondoren, 10-13 urtekoa (% 41); eta, azkenik, 17-18 urtekoa (% 7).

Ikusi dugu parte-hartzaileen ehuneko handi batek (% 43) aurreko ikasturtean #FeminismoMola programan parte hartu zuela. Datu esanguratsua da, kontuan hartuta formatu horretan bi edizio eta erdi baino ez direla egin.

Iazko memorian, Eskola epe laburrean hobetuko luketen lehentasunezko zeregin hauek identifikatu genituen:

- Aliantzak ezartzea euskal kulturarekin eta euskararen sustapenarekin zerikusia duten eragileekin, biek presentzia handiagoa izan dezaten eskolan.
- Gazteak erakartzeko estrategiak diseinatzea.
- Sorginenea-Zure etxe feministarekin lan koordinatua eta estrategikoa diseinatzea eta aurrera eramatea.
- Eskolaren programazioa diseinatzekoan, kolektibo feministen eta ikuspegi feministarekin lan egiten duten elkarte mistoen lankidetzan jarraitzea.

Sorginenea proiektuaren bidez Gasteizko Emakumeen Etxea indartzea eta sendotzea.

Emakumeen eta emakumeentzako etxe bat sortzea Gasteizko mugimendu feministaren aldarrikapen historikoa izan da, eta adierazi du ahalduzko beharra –indibiduala eta kolektiboa– baita hiriko emakume, lesbiana eta transe eskaeren kudeaketarako espazio bat izateko beharra ere.

Gasteizen Emakumeen Etxea sortzeko prozesua 2017an hasi zen, eta 2019ko otsailean sortu zen SORGINENEA Asociación Casa de las Mujeres de Gasteiz/SORGINENEA Gasteizko Emakumeen Etxea Elkarte. Elkarte hori emakumeek, bakoitzak bere izenean, osatzen dute, eta etxea udalarekin batera elkarrekin kudeatzeko eta proiektuaren garapena bermatzeko sortu zen. Udalak Etxanobe Jauregia eraikina laga ondoren –[Gasteizko Jabekuntza Feministarako Eskola](#) ere bertan dago–, 2019ko apirilean, Sorginenearekin lankidetzaren hitzarmena sinatu eta egikaritze-proiektua onartu zen; 2019ko irailean, azkenik, Sorginenea-Zure Etxe Feminista inauguratu zen.

Hasiera-hasieratik, Sorginenea sortu da emakumezkoek, lesbianek eta transek zuzendutako eta hauei zuzendutako proiektu gisa; leku segurua da elkartzeko, elkar ezagutzeko eta gure errealitatea eraldatzen lagunduko duten ekintzetan bat egiteko, ahalduzko pertsonal eta kolektiboaren bidez. Hala ere, ezin dugu

alde batera utzi 2020. urtea COVID-19k sortutako krisi sanitario, ekonomiko, sozial eta politikoak markatu duela.

Zailtasunak zailtasun, Sorginenearen proiektuak garatzen jarraitu du, ezarritako segurtasun- eta higiene-arauak betez eta jarduerak eta bilerak bitarteko telematikoetara egokituz. Hala, 2020. urtean, eta Sorgineneak Berdintasunerako Zerbitzuari aurkeztu dion memorian oinarrituta, honako informazio hau aurkeztu dugu:

60 jarduera baino gehiago antolatu dira, besteak beste:

1. Te topaketa

Martxoaren 1ean, Te Topaketa bat antolatu zen, eta 80 emakume, lesbiana eta trans baino gehiagok parte hartu zuten. Gasteizko alkate ohiak 2015ean sustatutako kanpaina xenofobo eta arrazistari gizarte-mugimenduek emandako erantzun ugarietakoak dira Te Topaketak hauek. Atzerritar jatorriko egoiliarren komunitateari zuzenduta, batez ere magrebtar eta pakistandarrei, kanpaina horren ardatza izan zen pertsona horiek Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren prestazioa jasotzeko duten eskubidea, baina, bide batez, migratuei, errefuxiatuei edo asilo-eskatzaileei buruzko zurrumurru faltsuak eta estereotipoak sustatu eta zabaldu zituen.

Te Topaketa hartan jorratu ziren gaiak parte-hartzaileek Sorginenean izan zezaketen parte-hartzea eta inplikazioa izan ziren, baita Sorgineneak erantzun zitzakeen gaiak eta beharrak ere. Halaber, Martxoaren 8ko deialdiari heldu zitzaion, zapalkuntza-iturri desberdinek zeharkatutako emakumeak mugimendu feministaren aldarrikapenetara eta deialdietara hurbiltzeko estrategia gisa. Jarduerak hedatzeko ohiko bideez gain, Te Topaketa honetarako, jatorri desberdinetako emakume, lesbiana eta transengana iristen saiatu ziren, lehendik zeuden sareen bidez parte hartzera gonbidatuz.

2. "Konfinatuak" I. Literatur Lehiaketa

"Eleen Ganbara" liburutegi feministaren esparruan —2019ko abenduan inauguratu zen Sorginenea-Zure Etxe Feminista—, I. Literatur Lehiaketa antolatu zen 2020ko maiatzean, "Konfinatuak" izenburupean, eta arrakasta handia lortu zuen. Liburutegiaren I. urteurrena ospatzearekin batera, sariak banatzeko ekitaldia egin zen, eta lehiaketara aurkeztutako kontakizun onenen aukeraketa jasotzen duen liburua aurkeztu zen.

Era berean, Sorginenea eta bere Liburutegi Feministara hurbiltzen den emakume, lesbiana eta trans kopurua aipatu behar da, ikuspegi feministako liburu-bildumak erakarrita. Kalitate handiko liburuen aukeraketa honek gure diskurtso feministan, bakarka zein taldean, hausnartzen eta sakontzen jarraitzeko aukera ematen digu. Gainera, Gasteizko Udalaren Jabekuntza Feministarako Eskolaren esparruan sortu diren hainbat irakurketa-klub daude, eta horiek pixkanaka artikulatu eta "Eleen Ganbara" liburutegi feministaren esparruarekin lotu litezke.

3. Bazkideen ongizateari buruzko diagnostiko kualitatiboa konfinamendu-garaian

Udaberriko konfinamenduan, bazkide asko bizi zuten egoeren larritasunaz kezkatuta, Sorgineneak haiekin harremanetan jartzea erabaki zuen, haien konfinamendu-egoera ezagutzeko: nola zeuden, zer premia zituzten eta Sorgineneak nola lagundu ahal zien jakiteko. 30 dei baino gehiago egin ziren, eta, dei horietan bildutako informaziotik abiatuta, egoeraren diagnostiko labur bat idatzi zen. Ondoren, Alkatetza Sailaren zerbitzuetako bakoitzak lan egiten duten elkarteekin egiten ari ziren diagnostikoarekin bateratu zen. Telefono-dei horietan jasotako informazioaren sistematizaziotik abiatuta, bazkideen artean hainbat ondoez eta behar identifikatu ziren, arlo ekonomikoarekin, emozionalarekin, digitalarekin eta zainketarekin lotuta, eta, aldi berean, elkarren artean lotuta.

4. Eten digitala

Askotan, baliabide ekonomikorik ez dagoenez, pertsonak —banakoek edo bizikidetzak-unitateek— ez dute gailu digitalik edo Interneterako konexiorik edo, hala badagokio, sarbide oso prekariora izaten dute. Era berean, alfabetatze digitalarekin lotutako trebetasunak ez izateak ondorio kaltegarriak ditu emakume, lesbiana eta trans horien bizitzan. [Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialeko erakundeetan Covid-19ren Eraginari buruzko Txostenean](#) parte hartu duten erakundeen % 44,6k honako hau adierazi du: "Arazo horiek bihurtzen dira, desinformazio, online komunikaziorako zailtasun (bideo-deiak, etab.), online prestakuntza jasotzeko

zailtasun, etab.". Horiei isolamendu soziala, enplegua bilatzeko edo mantentzeko eta gizarte-zerbitzu, -baliabide edo -prestazioetarako sarbidea izateko zailtasunak gehitu ahal zaizkie.

Internetarako sarbide zuzen eta indibidualetik harago, [Interneteko Printzipio Feministek](#) adierazten dute Internet eta teknologia erabiltzeak garrantzi handia duela honako hauetarako: mugimendu eta parte-hartze publikorako; lankidetzan, elkartasun eta ondasun komunak printzipioetan oinarritutako ekonomia sustatzeko; eta adierazpen-askatasunerako eta diskurtso feministaren bozgorailu izateko, besteak beste.

Horregatik guztiagatik, Sorgineneak funtsezkotzat jo zuen ahalduntze-prozesu bat sortzea emakume, lesbiana eta transekin, Internetarako eta gailu elektronikoetarako sarbidean eten digitala murrizteko. Horretarako, 2020ko abenduan, ordenagailu-gela bat prestatu zen etxean alfabetizazio digitaleko oinarritzko ikastaroak egiteko.

5. Sorgineneako indarkeria matxistaren aurkako protokoloa

Sorginenean, ireki zenetik, kontuan izan da indarkeria matxistari Sorgineneatik bertatik heltzeko premia, potentzial handia baitugu logika kolektiboago batekin, ikuspegi feminista argi batekin eta emakumeen, lesbianen eta transekin ahalduntzean oinarritutako helburuarekin erantzuteko. Horrela, Sorgineneak detekzio-, harrera- eta ulermen-espazio alternatibo bat izan nahi du, biziraun duten pertsonen beharrei erantzuteko espazio osagarri bat izan dadin.

Horregatik guztiagatik, 2020an, emakume, lesbiana eta trans guztioi eragiten diguten indarkeria matxistei aurre egiteko eta salatzeko prozesu parte-hartzaileari ekitea erabaki zen, eta aurkako jarrera hartzea, Sorginenea konfiantzazko leku seguru bihurtuz, ikuspegi intersektorialetik. Prozesu honetan garatu beharreko funtsezko helburuak hauek izan dira:

- Indarkeria matxistako egoeretan laguntza eta informazio bila Sorgineneara joaten diren emakume, lesbiana eta transekin arreta eta informazioa hobetzea.
- Eztabaida eta hausnarketa bultzatzea, indarkeria matxistaren definizioari buruzko adostasunak lortzeko, protokolo hau egiteko prozesu parte-hartzaile hau gidatu ahal izateko.
- Eraso larrien kasuan salaketa sozialerako ekintza multzo bat adostea eta ezartzea, dauden beste eragile eta baliabide batzuekin artikulatuta.

Berdintasunerako Zerbitzuak, bere aldetik, 2020. urtean honako zeregin hauek egin ditu Sorginenea-Zure Etxe Feministarekin lankidetzan:

- Sorginenea elkartearekin Sorginenea-Zure Etxe Feminista proiektua garatzeko 2020. urterako lankidetzan-hitzarmenaren 1. luzapena onartzeko kudeaketa. 2019ko abenduaren 19an onartu zen.
- Martxoaren 10ean, kontu-hartzailetzan aurkeztu zen 2019ko proiektuaren justifikazioa .
- Elkartearekin kontrastatzea 2020rako aurkeztutako proiektua (2020ko urtarrilaren 31), eta POA (Urteko Plan Operatiboa) eratzeko edukiei eta ekintzei buruzko akordioa lortu aurretik, Plan hori egitea (martxoaren 6an onartu zen).
- Kudeaketa-lan teknikoa, elkarteak Sorginenea kudeatzen egiten duen lana errazteko. Horretarako, aldian-aldian bilerak egin dituzte etxea kudeatzen duen elkarteak kontratatutako teknikariek eta Berdintasun Zerbitzuan koordinazioaz arduratzen direnek.
- Proiektuaren jarraipena egitea, Jarraipen Batzordearen bileren bidez (guztira, 3 bilera 2020an zehar), elkartearen eta Udalaren ordezkariekin.

Eraiki-Arabako Errepublikar Ateneo Elkarte Kulturalak aurkezturiko eta 2020ko ekaineko osoko bilkuran onarturiko mozioa garatzen laguntzea (*Parekidetasunerantz, baita kale-izendegian ere*)

Honako esku-hartze ekintza hau abian dago oraindik. 2020ko ekainaren 19an, aho batez onartu zen Udaleko osoko bilkuran Eraiki-Arabako Ateneo Errepublikano Kultur Elkarteak aurkeztutako mozioa, *Parekotasunerantz, baita kale-izendegian ere*. Eraiki-Arabako Ateneo Errepublikano Emakumeen taldeak

aurkeztutako mozioak María de Maeztu Forum Feministak 2010ean sustatutako ekimena gogorarazten du, emakume izena zuten Gasteizko kaleen zerrenda egin baitzuen.

Lan horri esker Berdintasun Zerbitzuak erakusketa bat antolatu zuen M8 oroitzeko. Erakusketa horretan, emakumeen izena duten Gasteizko kaleak aintzat hartuz, andre haiek (herritar gehienek ezagutzen ez dituztenak) berdintasunaren alde egin zituzten ekarpenak nabarmendu ziren.

Gutxi dira emakume ospetsuen izenak hiriko kale-izendegian; halaber, mozioan jasotzen dira kontuan hartu beharreko beste gai garrantzitsu batzuk:

- Espazio publikoen %4,5ek bakarrik du emakume-izena, hau da, pertsona-izena duten espazio guztien %15ek.
- Gaur egungo kale-izendegian dauden emakumeen aipamen gehienek patriarkatuak baloratutako rolak bete zituztenei dagozkie: halakoren emaztea, santua, lekaimea, erregina-ezkontidea, eta abar. Hala, eskubideak lortzeko borrokan erreferente izan ziren emakumeak ikusezin bihurtu izan dira..
- Emakumeen borrokaren erreferente diren emakume ospetsuen izena duten eremu publiko edo kale urriak, hala nola Clara Campoamor, garrantzi gutxiagoko edo agerikoak ez diren lekuetan daude.

Planteamendu horren barruan, kale luzeak banatzeko proposamena ere jaso zen, izena partekatuz. Berdintasun Zerbitzuak lan proposamen bat egin zuen parte hartze prozesu bat dinamizatzeko, baina talde politikoekin bi bilera egin ondoren prozesu hori gelditu egin zen. 2020ko abenduan Ateneo Errepublikanok talde politikoekin batzeko gonbitea jaso zuen eta lehen bilera hartan, eraikuntzetako teknikari batek kale bat izendatzeko edo izena aldatzeko prozedurak azaldu zituen. Era berean, bileran, izenik gabeko espazioen zerrenda eskatu zuten, eta partaidetza-prozesua bultzatzen jarraitzea erabaki zen, horretarako hileru bilera bat egitea adostu zen.

2.XE: LGTBI PERTSONEN AHALDUNTZE PERTSONAL ETA KOLEKTIBOARI LAGUNTZEA

3.2.1. XO: SEXU- ETA GENERO-ANIZTASUNAREN ARLOAN HAUSNARTZEKO, TREBATZEKO, PARTE HARTZEKO ETA ERAGITEKO GUNEAK SUSTATU ETA SENDOTZEA

#FeminismoMola egitasmoan sexu- eta genero-aniztasuna ikusarazteko eta LGTBI fobiaren aurka sentsibilizatzeko bi jarduera sartzea gutxienez.

[Jabetze Feministarako Eskolaren 2019-2020 programazioak](#) barne hartu zituen, batetik, Cola de Sirena, txotxongilo formatu txikiko ikuskizuna, Ruth García Ruzen eskutik; eta bestetik, Lur, transexualitateari buruzko antzezlan, Xake Produkzioak konpainiaren eskutik. Hiru urtetik gorako ikusleentzako bi ikuskizun hauek osatzen zuten, halaber, maiatzaren 17ko LGTBI fobiaren Aurkako Nazioarteko Eguna ospatzeko programazioa. Hala ere, bertan behera utzi behar izan ziren COVID-19 prebenitzeko ezarritako segurtasun-neurriak zirela eta.

Bai Cola de Sirena, bai Lur 2020-2021 Eskolan birprogramatu ziren eta 2021eko maiatzaren 8an eta 22an egingo dira, hurrenez hurren.

[Eskolaren 2019-2020 Memorian](#) adierazi genuen bezala, estrategikotzat jotzen dugu sexu- eta genero-aniztasun ospatzen duten jarduerak sartzea #FeminismoMola programaren programazioan. Hala, haurrek, nerabeek eta gazteek ere eskura dezakete informazioa, eredu kulturalak eta erreferenteak, ohiko rol eta estereotipoetatik eta orientazio sexual eta genero-identitateetatik aldentzen direnak. Hala, sexu- eta genero-disidentzian ahalduntzeko eta indarkeria matxistaren adierazpenak identifikatzeko tresnak izango dituzte eskura.

Sexu- eta genero-aniztasunari buruzko funtsen zerrenda bat egitea (nobelak, saiakerak, komikiak, ipuinak, filmak, serieak, dokumentalak eta abar), Gasteizko Udalaren Liburutegien Sareak eskuratu dezan.

Jarduera hau 2020ko abuztutik abendura bitartean gauzatu zen. Histeria Kolektiboa Idazkaritza Teknikoak, Berdintasun Zerbitzuaren laguntzarekin, gay, lesbika, trans, bisexual, intersexual eta sexu- eta genero-aniztasuna gaia jorratzen duten funtsen zerrenda egin zuen, besteak beste, komikiak, ipuinak, narratiba, poesia, saiakera, telesailak, filmak eta dokumentalak. Ondoren, Udal Liburutegien Sareak, prestutasun handiz, funtsen erosketa kudeatu zuen hiriko 8 liburu-dendarekin. Horietako batzuen aholkua jarraituz, izenburu berriak proposatu zituen zerrendan agertu baina, hainbat arrazoiengatik, eskuragarri ez zeudenak ordezkatzeko.

Gure ustez, ekintza hau funtsezkoa da herritarrek sexu- eta genero-aniztasun pluralaren, inklusiboaren, askearen eta klixe heteronormatiboetatik urrunduaren kultura, literatura, fikzioa eta teoria eskura dezaten.

Sexu-joerarekin eta genero-identitatearekin loturiko bi irakurketa-gida egitea, gai estrategikotzat baitauzkagu.

2021erako programatuta, ekintza hori 2020an hasi zen prozesatzen. Hasierako asmoa Udal Liburutegien Sarean LGBTI gaiari buruz dauden argitalpen guztiekin katalogo bat egitea bazen ere, azkenean, liburutegiek beraiek eskatuta, gaikako bi katalogo txiki egin dira. Irakurketa-gida horien izenburuak dira, hurrenez hurren, *Familia Aniztasuna* eta *Desio Heterodisidenteak*, eta sexu- eta genero-aniztasunari buruzko balioak aldatzeko sentsibilizazio-baliabide bat izan nahi dute. Herritarrek Gasteizko Udal Liburutegien Sarea osatzen duten edozein liburutegitan eskura dituzten argitalpenen izenburuak jasotzen dituzte. Aukeraketa oso anitza da hartzaileei eta generoari dagokienez: eleberria, narrazioa, saiakera, poesia, haurrentzako ipuina eta gazte literatura.

2020an, funtsak aukeratzeaz eta giden edukiak idazteaz gain, euskarazko itzulpena, diseinua eta maketazioa amaitu ziren.

Ez da erraza izan katalogo tematiko horiek egitea, Udal Liburutegien Sarean dauden LGBTI gaiari buruzko liburu gutxi daudelako, nahiz eta aurten liburu asko erosi; are gutxiago, euskaraz. Nahiko genuke gidetako gaiak hain globalak edo hain erabiliak ez izatea —sexu- eta genero-aniztasunari dagokionez, behintzat—, batez ere, familia anitzei buruzko gidaren kasuan. Hala ere, gure ustez gairik erakargarrienek eta lurreratuenek ez zuten euskarazko bibliografia nahikorik, hizkuntza horretan aipaturako izenburuen kopuruak gaztelaniazko izenburuen pisu bera izan zezan. Hizkuntza-irizpidea da bi irakurketa-gidetako gaiak zehazteko lehenesten duguna.

Proiektu bat egitea, ikuspegi feminista interseksionalarekin, indarkeriei aurre egin dieten LGBTI pertsonen erresistentzia-estrategiei buruz oro har, eta konfinamenduan, bereziki, ahalduntze-narratibak eraiki eta ikusarazteko.

Gaur egun, LGBTI pertsona askorentzat, bere burua onartzeko ispilurik ez izatea sosegurik ez izateko, ezkutatzeko eta are beldurtzeko ere arrazoi bat da; sisteman eta pareekin bat ez datozen pertsona bitxiak direla senti daitezke. Bestalde, badakite beren sexu-orientazioa edo genero-identitatea lau haizetara aldarrikatuz gero, hainbat diskriminazio jasango dituztela, maila handiagokoak edo txikiagokoak, beren bizitzan zehar.

Horrela, bada, ekintza hau LGBTI pertsonen erresistentzia-estrategiei buruzko argitalpen batean gauzatuko da, Gasteizen, ikuspegi interseksionalarekin eta ahalduntze-ikuspegiarekin diseinatuta eta landuta. Bi helburu nagusi ditu: alde batetik, LGBTI biztanleentzako tokiko erreferente batzuk plazaratu nahi ditu. Bestetik, herritar guztiek honako istorio hauek eskura izatea nahi du: heteronormatibitatea zalantzan jartzen dutenak, eta sexu- eta genero-aniztasuna balioan jartzen dutenak askapenerako modu gisa, eta bizipen eta bizitzako aukeren mugak zabaltzeko modu gisa.

Hauek dira beren istorioak kontatu zizkiguten pertsonen profilak: marika heldu bat; bollo heldu bat; adin ertaineko neska trans bat; emakume trans migratzaile bat; emakume magrebtar lesbiana bat; transformista heldu bat; eta gazte talde bat.

Ikusgune profil horiek identifikatzeaz arduratu zen; Pikara Maganize elkarrizketak egiteaz eta testuak egiteaz; eta, Histeria Kolektiboa proiektuaren koordinazioaz. Horrela, azken produktua argitalpen elebiduna izango

da, zeinak Berdintasun Zerbitzuaren sarrera, June Fernandezek hitzaurrea (Pikara) eta aurretik aipatutako 7 istorioak batuko dituen.

2021ean euskarazko itzulpena, diseinua, maketazioa eta argitalpenaren zabalkundea egingo dira. Uste dugu argitalpen honek gaitasun eraldatzaile garrantzitsua izan dezakeela, istorioen indarra eta horiek jasotzeko estiloa kontuan hartuta. Ikusiko dugu zer emaitza dituen herritarrei zabaltzeak.

3.XE: GASTEIZEN BERDINTASUNERANTZ ABIATZEAREKIN DAGOEN GIZARTE-KONPROMISOA BABESTEA

3.3.1. XO: GASTEIZKO ERAKUNDE ETA ELKARTEETATIK GENERO-BERDINTASUNA SUSTATZEA

Alkatetzaren eta Erakundeekiko Harremanen Udal Sailak garatzeko proiektu komunitarioen poltsa martxan jarri eta jarraipena ematea (2020).

COVID-19aren pandemiak eragindako larrialdi-egoeraren ondorioz sortutako beharrei erantzuteko eta gizartea eta komunitatea sendotzea helburu, Proiektu Komunitarioen poltsa abian jarri zen ekainean, gizarte-sarea indartzen laguntzeko, komunitate-garapenerako ekintza kolektiboari protagonismoa emanez.

Alkatetzaren eta Erakunde Harremanen Sailak sustatutako deialdi hau, Gazteria, Berdintasun eta Bizikidetzaren eta Aniztasun Zerbitzuek elkarrekin kudeatu dute. Oinarri izan du herritarrek giza eskubideen, berdintasunaren, justiziaren, gizarte-kohesioaren eta herritarren bizikidetzaren alorretan sortzen zaizkien erronkei alternatibak, aldaketak eta erantzunak sortzeko duten ahalmena. Poltsa gauzatzeko aurrekontua 90.000 eurokoa izan da.

Hiriko 33 entitatek sustatutako 46 proiektu aurkeztu dira deialdira, eta horietatik 38 Proiektuen Poltsan sartu dira. Poltsa honen bitartez, gizarte-taldeek aurkeztutako komunitate-izaerako 20 proposamen berritzaile egin dira guztira, udal-zerbitzuen programazioen interesari eta beharrei erantzuna emateko. Gauzatutako azken aurrekontua 75.125,37 eurokoa izan da.

Egindako proiektuak, nagusiki, honako eremu hauetan kokatu dira:

- Genero-berdintasuna eta indarkeria matxistaren aurkako ekimenak.
- Giza-eskubideak, aniztasunaren eta bazterkeria-ezaren aintzatespena.
- Gazteen integrazio aktibo eta partizipatiboa gizartean.
- Gizarte- eta komunitate-laguntza.
- Boluntariora. Boluntario gazteek gizarte-ekintzako jardueretan parte hartzea.
- Garapen Iraunkorreko Helburuak (GIH-ak)
- Arriskuko drogen kontsumoa murrizteko prebentzio-programak eta zerbitzuak.

Aurrekoak garatzeko, askotariko formatuak erabili dira: laguntza sozio-komunitarioko programak, prestakuntza lantegiak, informazio kanpainak, sentsibilizazio ekintzak, erakusketak, esku-hartze artistikoak, inklusiorako prozesuak eta ibilbideak, ekintzak eremu publikoan, etab.

Era berean, nabarmentzekoa da proiektuen onuradunak anitzak izan direla (haurrak, gazteak, elkarteak, guraso-elkarteak, auzo-elkarteak, bakarrik dauden gazteak eta hiriko komunitate orokorra, zaurgarritasun-egoeran dauden pertsonak, boluntarioak...); era berean, proiektu batzuk hiriko eremu jakin batzuetan egin direla: Zabalzana, Alde Zaharra, Adurtza eta Ariznabarra.

Uztaitetik abendura bitartean gauzatu diren 20 proiektuak honako hauek izan dira:

Entidades	Proyecto
ALAIN LARREINA	Espazio publikoa suspertzea
GOIAN	Ongi etorri Alde Zaharrera
ASOC. MUSICOTERAPIA	Vitoria-Gasteiz Vecindario compasivo y cuidador
ERAKUSMETA	Confecciones domésticas
ASCUDEAN	Inicia
SARTU ALAVA	Boluntario gazteak, errealitate berriaren aurrean
IRSE ARABA	Creando Barrio. Auzoa eraikitzen
ASPASOR	Entzuteko aniztasun funtzionala duten pertsonekin komunikatzeko praktika egokiak
KOKUK	Conexión programas Intervención socio educativa cocurricular
KALIMBA	Elkarri laguntzeko txokoa
ASPACE ALAVA	Enlazando diversidad, enlazando capacidades
ERAKUSMETA	Discoteca Horizontal
MIREN AMESTOY	Fitmoveat. Relación con el ejercicio
ASOC. AWAKE	Awake Gasteiz. Autoezagutza
SARTU ALAVA	Gasteiz Klik
COLOMBIA EUSKADI	Irakurketa-idazketa sortzailearen tailerra
PLAN BIKO	Aztarna Vitoria-Gasteiz
AILAKET	Boluntariotza hedatuz
ARABAKO GORRAK	Pertsona gor nagusien alfabetatzea
ASOC. TEA ALAVA	Berdintasuna desberdintasunetik

Proposamen eta jardura gehienak egin ziren momentuan indarrean zeuden segurtasun-neurrietara eta murrizketetara egokitu behar izan ziren.

Berdintasun Zerbitzuaren dirulaguntzen urteko deialdia egitea, genero-berdintasunaren arloko jarduerak eta proiektuak garatzeko.

COVID-19k eragindako osasun-larrialdiari aurre egiteko Espainiako lurralde osoan deklaratu zen alarma-egoera dela eta, bertan behera geratu zen Berdintasun Zerbitzuaren dirulaguntzen deialdia, genero-berdintasunaren arloko jarduerak eta proiektuak garatzeko bideratuta dagoena.

Berdintasun Zerbitzuaren dirulaguntzen urteko deialdian, sexu- eta genero-aniztasunaren ikuspegia berrikustea, xedeari zein balorazio-irizpideei dagokienez.

Jarduera hau 2021erako programatu arren, 2020ko azaroan berrikusi genituen [Gasteizen genero-berdintasunaren arlorrean jarduerak eta proiektuak garatzeko dirulaguntzak emateko deialdiaren berariazko oinarriak. 2021eko ekitaldia.](#)

Oinarriak aldatzea erabaki zen LGTBI pertsonen errealitatea berdintasunaren arloko udal-politika publikoen agendan sartzeko asmoz, sexu- eta genero-aniztasuna Zerbitzuaren dirulaguntzen urteko deialdian sartzeko, hain zuzen ere.

Hona hemen eguneraketarik nabarmenenak:

- LGTBI elkarte eta kolektiboen egoera aldatzea. Aurreko deialdietan, elkarte eta kolektibo mota horiek "erakunde mistoak" kategorian sartzen ziren, eta, bigarren mailako leku bat erreserbatzen zitzairen kirolaren, kulturaren eta abarren arloko beste erakunde batzuekin batera, elkarte feministek eta emakumeen elkarteek aurkeztutako proiektuetarako erreserbatutakoarekin alderatuta. 2021ean, emakumeen kolektiboek eta elkarteek, feministek eta LGTBI elkarteek aurkeztutako proiektuak lehenesten eta indartzen saiatu gara.
- Halaber, 5.2 puntuan zehazten den bezala, elkarteek "datuak sexuaren eta generoaren arabera bereizita aurkeztu beharko dituzte (emakumea/gizona/ez-bitarra), bai aurkeztutako proiektuan, baita justifikazioan ere".

Aurrekoaz gain, berrikuspen horrek ikuspegi intersektionalaren txertaketa hobetzeko balio izan du, eta orain sexu-orientazioaz eta genero-identitateaz harago dauden beste arrazoi batzuk kontuan hartuko dira, hala nola kultura-testuingurua edo -identitatea edo jatorria.

3.3.2. XO: EKINTZA KOLEKTIBOA BULTZATZEA, GENERO-BERDINTASUNAREN ARLOAN SENTSIBILIZATZEKO ETA SALAKETA EGITEKO

Martxoak 8, Emakumeen Nazioarteko Eguna. Urteko sentsibilizazio eta salaketa kanpaina diseinatzea eta martxan jartzea.

Urtero bezala, Berdintasunerako Zerbitzuak data hau ospatzen du, lortutako aurrerapenak goraituz, baina, batez ere, genero-berdintasuna aldarrikatuz eta emakumeok gure bizitzako alderdi askotan oraindik bizi ditugun desberdintasunak ikustaraziz.

2020an, "AURRERA BAINO EZ/SOLO HACIA ADELANTE" kanpainaren bidez, Gasteizko Udalak genero berdintasunarekiko konpromisoa berretsi nahi izan zuen, emakumeen eskubideen inguruan sortutako zalantza eta atzera egiteko mehatxuen aurrean. Eskubide horiek emakumeen mugimendu feministaren eta elkarte-mugimenduaren borroka eta aldarrikapenei esker lortu dira, bai eta maila indibidualean hainbeste pertsonarenak eta eskaera horiek beren agendan txertatu dituzten erakundearenak ere.

Era berean, berdintasun politiketan ikuspegi intersektionala eta internazionalista txertatuz pertsona guztientzako gobernagarritasun eredu berdinzaleago baterantz aurrera egiten jarraitzeko beharra berretsi nahi izan zuen kanpainak. Hori guztia, esparru guztietan oraindik dauden genero-desberdinkeriak eta diskriminazioak ikusarazteko, eta horiei aurre egiten jarraitzeko. Horrekin batera, tokiko bizitzan pertsona guztien eskubideak eta parte-hartzea bermatuko dituen berdintasuneko gizarte inklusiboa eraikitzen laguntzea zen helburua, berdintasunerako bidean atzerapausurik egin gabe.

Hala, Berdintasunerako Zerbitzuak ekintza hauek antolatu zituen:

- "Gorputz bizigarriago baterako bidean: Ioditasuna, edertasun-kanonak eta argaltasuna". Formatzailea: Irati García.
- "Erradikalak ginen: monologoak, bertsoak eta antzerkia". Ane Labaka eta Beatriz Egizabal.
- 3ren artean Zineforuma, "Paseko txoriak" dokumentalaren emanaldia. Zuzendaria: Juanmi Gutiérrez.

- "Desobedientzia zibila eta feminismoa". Madrilgo Asanblada Antimilitarista.
- "Feminismoak eta emakumeak Indian". Hizlaria: Isabel Allende Robredo.
- Autodefentsa feministarako lantegia (14 eta 18 urte bitarteko neskontzat). Formatzailea: África Aznar Moriones.

Kanpainaren diseinua eta publizitatea egin ziren, baina COVID-19ak sortutako alertaren ondoriozko konfinamenduak eta osasun-neurriek kanpainaren abiaraztea kaltetu zuten. Zehazki, programatutako 7 jardueretatik, 2 baino ez ziren egin. Gainera horietako batek, "Gorputz bizigarriago baterako bidean: loiditasuna, edertasun-kanonak eta argaltasuna" lantegiak ezin izan zen erabat amaitu. Lantegi hartan 19 emakumek parte hartu zuten guztira. Gauzatutako beste jardueran, "Erradikalak ginen" antzerki, bakarrizketa eta bertso ikuskizunean, 63 pertsonak parte hartu zuten (52 emakume eta 11 gizon).

05

4. ILDOA: INDARKERIA MATXISTARIK GABEKO HIRIA

4. ILDOA: INDARKERIA MATXISTARIK GABEKO HIRIA

Ildo honetan sartuko da Udalak hiriko indarkeria matxistaren inguruan egingo duen lana; funtsean, Berdintasunerako Zerbitzuaren eskumenekoa da hori.

1.XE: INDARKERIA MATXISTAREN PREBENTZIOARI, SENTSIBILIZAZIOARI ETA SALAKETARI LAGUNTZEA

4.1.1. XO: INDARKERIA MATXISTAREN AURREAN PREBENITZEKO EREDU BATEN EZARPENA BULTZATZEA UDAL-EKINTZAREN MULTZORAKO.

Libre Izan Nonahi! indarkeria matxista prebenitzeko udal estrategiari jarraipena ematea, hainbat programa eta lan prozesuren bidez; batez ere honako hauen bitartez:

- Jaietan prebenitzeko eta sentsibilizatzeko kanpaina, lantalde ibiltari eta informazio gunearekin.
- Hezkuntza eremu formalean indarkeria matxistaren inguruan sentsibilizatzeko eta indarkeria mota hori prebenitzeko esku hartzea, DBHko eta DBHoko ikasleei nahiz haien irakasleei begira (Hiri Hezitzaileak programaren barruan).
- Libre Izan Nonahi Estrategiatik abiatuta, gazteentzako jarduerak zehaztea eta martxan jartzea; besteak beste, azaroaren 25ari loturikoak (Emakumeen aurkako indarkeriaren nazioarteko eguna).

Estrategian zein berau osatzen duten programa eta jarduera guztietan, sexu eta genero aniztasunaren ikuspegia txertatzea.

Indarkeria matxista giza eskubideen urraketa da, eta batez ere, emakumeei eragiten dien genero-desberdinkeria adierazpenik larriena. Aurrerapenak egin diren arren, gure gizarteak parez pare duen arazo handienetakoa izaten jarraitzen du.

Nagusiki, emakumeen aurka egiten da bizitzaren esparru guztietan. Halaber, sistema heteropatriarkalak ezartzen dituen ereduak hausten eta zalantzan jartzen genero-orientazioak eta identitateak dituzten pertsonen eragiten die, eskubide eta aukera berdinen lorpenak oztopatuz.

Indarkeria matxista genero-desberdinkeria eta ordena sinbolikoa kontrolatzeko eta horiei eusteko tresna den heinean, Gasteizko Udalak lantzen ditu horren kontrako sentsibilizazioa eta kontzientziaketa eta aurre egiteko moduak. Hala, helburua da, indarkeria matxista sortzen eta mantentzen duten egiturazko desberdintasunetan eragitea eta, ahal den neurrian, indarkeria hori desagerrarazten aurrera pausoak ematea. Ildo horretan programa nagusietakoa da Libre Izan Nonahi! Indarkeria matxistaren prebentziorako Estrategia; 12 eta 30 urte bitarteko gazteentzat da eta azken 4 urteotan jorratu da.

Libre Izan Nonahi! prebentzio Estrategia honako jarduera hauek osatu zuten 2020ko urtean:

1. Adsis Fundazioaren Oinarrizko Lanbide Heziketako programako ikasleentzako autodefentsa feministako lantegia

Autodefentsa Feminista (aurrerantzean AF) emakumeen eta neskatuen jabetze indibiduala eta kolektiboa bultzatzeko tresna bat da. Nork bere burua defendatzeko teknika fisikoak ikasteaz gain, lantegi honetan eskaini ziren neskek beren eguneroko bizitzan bizi dituzten desberdinkeria egoerak aztertzekeo tresnak, jasaten duten indarkeria sexista nondik datorren ulertuta. Horrez gain, ikasleek indarkeria horiei aurre egiteko teknika emozionalak, fisikoak eta kognitiboak landu zituzten.

Horrela, bada, urtarilaren 10eko eta 17ko ostiraletan, 10:00etatik 14:00etara, Arriagako kiroldegian, Adsiseko ikasleentzako Autodefentsa feministako lantegi bat antolatu zen. Zehazki, 15 eta 18 urte bitarteko Lanbide Heziketako eta Hazia 23ko programetako neskeentzat. Hilaren 10ean, 17 ikaslek parte hartu zuten,

eta 17an, berriz, 19 ikaslek. Guztira, 14 ikaslek parte hartu zuten lantegia osatu zuten 2 saioetan (8 ordu guztira).

2. Aisialdirako gunetan sentsibilizazio eta prebentziorako bikote ibiltariaren jarduera

COVID-19ak sortutako egoeraren ondorioz, 2020. urteko Andre Maria Zuriaren jaiak bertan behera geratu ziren. Hori dela eta, jaietan indarkeria matxista prebenitzeko eta sentsibilizatzeko ohiko programa bertan behera utzi behar izan zen, besteak beste, indarkeria matxista prebenitzeko eta hari aurre egiteko informazio puntuaz eta sentsibilizazio eta prebentzio talde ibiltariak osatua,.

Hala eta guztiz ere, erabaki zen indarkeria matxistaren sentsibilizazio eta prebentzio bikote ibiltariaren lana martxan jartzea, indarkeria matxistaren prebentziora eta sentsibilizaziora aurrera egiten jarraitzeko. Bikote ibiltaria Gasteizko gazteen aisialdiko lekuetara hurbildu zen gazteen irteera ordutegietan.

Beraz, oinez, urriko, azaroko eta abenduako 10 asteburutan, hezitzaile batek eta kale hezitzaile batek osatutako bikote espezializatu bat hiriko hainbat kale, parke eta eraikin publikoan ibili zen aisialdirako guneetan dauden gazte talde lagunekin indarkeria matxistaren inguruko sentsibilizazioa eta prebentzioa lantzeko. Irteerak ostiralero eta larunbatero izan ziren, urriaren 2tik eta abenduaren 5era bitartean, 17:30etik 20:30era. Halloween asteburuan, irteeraren ordutegia 21:30era arte luzatu zen.

Talde ibiltariak LABIk ezarritako segurtasun baldintza aldakorretara egokitu zituen bere jarduerak. Guztira, 191 esku-hartze egin ziren, 12 eta 26 urte bitarteko gazteekin. Zehazki, 104 emakumezko-talde, 45 emakumezko- eta gizonezko-talde misto eta 42 gizonezko-talde. Orotara, 688 pertsonak parte hartu zuten: 453 emakume, 234 gizon eta ez-binarioa den pertsona bat.

Bikote ibiltariak gazteek partekatzen dituzten edukiari, tonuari eta esperientziei moldatu zituen bere esku-hartzeak. Betiere, indarkeria matxistak sortzen eta eusten duen balio eta sinesmen sisteman eragiteko helburuarekin. Jarduera horri dagokionez, bereziki garrantzitsuak diren datu batzuk nabarmendu behar dira:

- Parte hartu zuten pertsonak ez zituzten ezagutzen udalak eskaintzen dituen baliabideak, indarkeria matxista kasuetan arreta emateko/bideratzeko.
- Esku hartzean artatutako gazteek indarkeria matxistari buruz duten kontzientziazio maila. Zaila da interpretatzea, baloratutako iritzia taldekoa baita, eta ez banakakoa.. Talde mistoen (neska-mutilak) kontzientziazio maila oso desberdina izan zen: baliorazio gehienak 6,63 ingurukoak izan ziren, baina talde batzuek uste zuten, 1etik 10era, kontzientziazio maila 2 puntukoa zela; beste talde batzuek, berriz, 10 puntukoa. Neska- taldeetan, batez besteko balorazioa 7koa izan zen, eta mutil-taldeetan, balorazioak 4,2 ingurukoak izan ziren.

Taldeek jarrera positiboa izan zuten esku-hartzeetan, eta interesa eta parte hartzeko gogoia erakutsi zuten (egindako 191 esku-hartzeetatik 108). Era berean, bikote ibiltariak zenbait ohar jaso zituen, eta, horien artean, bi nabarmenezkoak dira: batetik, gazteek eta nerabeek informazio gehiago eman behar zutela; eta, bestetik, elkarreraginean, gehiegizko hitzezko indarkeria nabaritu zela. Bi alderdi horiek kontuan hartu behar dira etorkizuneko jardueretan.

3. “MaiteEzMindu/Violencia no es amor” 40 lantegi

2020ko azken hiruhilekoan, aurreko urteetan bezala, indarkeria matxistari buruzko sentsibilizazio eta prebentzio lantegiak eman ziren hezkuntza esparru formalean. Guztira, 40 lantegi izan ziren, 2019an baino 15 gehiago.

Lantegi horietan DBHko eta DBHoko ikaslek hartu zuten parte. Salbuespen gisa, horietako 2 lantegi Derrigorrezko Lehen Hezkuntzako 5. mailako ikasleentzat izan ziren. Lantegi horiek Libre Izan Nonahi Estrategia egituratzen dituzten zutabetariko bat izateaz gain, Hiri Hezitzaileen Programaren parte dira. Lantegion helburua gazteen artean indarkeria matxistaren kontzientziazioa eta prebentzioa lantzea da. Horretarako, identifikatzeko eta aurre egiteko tresnak eskaintzen zaizkie.

2020ko urriaren 26tik abenduaren 18ra bitartean, orotara [40 “MaiteEzmindu/Violencia no es amor” lantegi](#) egin ziren hiriko 12 ikastetxetan. Guztira, 812 pertsonak parte hartu zuten (390 emakume gaztek eta 420 gizon gazte eta ez-binarioak diren 2 pertsonak), 2019an baino 281 pertsona gehiagok.

Lantegi bakoitzak 4 orduko iraupena izan zuen, 2 orduko bi saiotan banatuta. 40 lantegi hauetatik 26 tailer euskaraz izan ziren, eta beste 14ak, ele bietan.

Oro har, ikasleek eta irakasleek garrantzitsutzat jo zuten landutako gaiak jorratzea. Irakasleek gaien sakontzeko beharra aipatu zuten ikasleek gabezia handiak dituztela eta "normaltzat" eta jarrera matxista desegokitzat hartzen dituztela iritzita.

4. "MaitEzmindu/Violencia no es amor" irakasleentzako lantegia

Urriaren 26an, "Maitezmindu/Violencia no es amor" lantegia antolatu zen irakasleentzat. Lantegiaren helburua irakasleei beren ikasgeletan gertatzen diren indarkeria matxistaren egoerak detektatzen trebatzea eta egoera horiei aurre egiteko tresnak ematea izan zen.

Saioa 2021era atzeratu behar izan zen bi irakaslek baino ez baitzuen izena eman bertan parte hartzeko.

5. Indarkeria matxistari buruzko informazio saioak Derrigorrezko Lehen Hezkuntzako 5. mailako ikasleentzat

Otsailaren 11n, Ikasbidea ikastetxeko DLHko 5. A eta 5. B geletara joan ginen ikasleekin indarkeria matxistari buruz hitz egitera. Bi saio haietan indarkeria matxista identifikatzeko eta aurre egiteko erremintak eskaini genizkien. Horrez gain, bere adinetako genero-berdintasuna eta indarkeria matxistari aurre egiteko antolatzen ditugun ekintzen berri eman genien.

Haurren udal Elkargunearen bidez, ikasleek beraiek izan ziren informazio saio hauek eskatu zituztenak.

Saioetan, indarkeria matxistari eta indarkeria horren tipologiari buruzko informazio eskaini zitzairen, baita Berdintasunerako zerbitzu honek haur eta nerabeentzako daukan programazioaren gainekoa ere. Era berean, ekintza horietan parte hartzera gonbidatu genituen.

Guztira 52 pertsonak parte hartu zuten bi lantegiotan. Horietakoak 27 emakume eta 25 gizon (gela horietako bi tutoreak barne).

6. Berdintasunezko harremanei eta harreman ez sexistei eta matxistei buruzko lantegia, 13 eta 17 urte bitarteko mutilentzat

13 eta 17 urte bitarteko 8 mutilek parte hartu zuten errespetuzko eta berdintasunezko harremanei buruzko tailer batean urriaren 15ean eta 29an eta azaroaren 12an eta 26an. Tailerraren helburua indarkeria matxistaren oinarri diren balioen eta sistema heteropatriarkalak ezartzen dituen ereduari buruz hausnartzea izan zen.

Guztira, 6 orduko lantegia izan zen, eta janari errezeta desberdinak prestatzeko aitzakiarekin, indarkeria matxistaren prebentzioan eragin nahi izan zen.

Feminismoaren eta sexualitatearen arloko profesional batek eman zituen 1,5 orduko 4 saioak. Inguruko kaleko hezitzailea ere bertan izan zen, 4 saioetan.

Gaia lantzeko errezetak prestatzeko ideia erabili zen; izan ere, jakin bagenekien sukaldaritza haientzat gune interesgarria zela. Saioetan, sukaldean aritzeaz gain, eredu maskulino hegemonikoari buruzko gogoeta egin zen, jarrera eta balio matxistak eta indarkeriak justifikatzen dituenak. Azken batean, parte hartzaileei lagundu nahi zitzairen berdintasunezko harreman eruedetarantz jotzera, baita gizon izateko eta sentitzeko beste modu batzuetara ere, nagusitasuna eta boterea pribilegioei eusteko modu gisa erabiltzea ez dakarten moduetara, hain zuzen ere.

7. MFEST jaialdia

Azaroaren 14an, MFEST jaialdiaren laugarren edizioa ospatu zen. MFESTa emakumeek antolatutako musika jaialdia da, inposaketarik gabeko espazio bat sortzeko helburuarekin. Jarduera hau Gazteria Zerbitzuaren Gauekoak programazioaren baitakoa. Gazteria Zerbitzuak eta Berdintasunerako Zerbitzuak MFEST jaialdian indarrak batu zituzten, musikaren bidez indarkeria matxistari aurre egiteko.

Jaialdia emakume artistei babes eta espazio emateko asmoz antolatu zen, eta, hala, parte hartzea bultzatu, normalizatu eta ikusarazi egin zen emakumezkoek parte hartzea musikaren esparru maskulinizatu batean. Estatuko bi taldek eta Bizkaiko batek parte hartu zuten: Bala, talde galiziarra, Lady Banana (Zaragozako) eta Sua (Mungia).

COVID-19tik eratorritako murrizketak gorabehera, bai artistak bai ekitaldian parte hartu zuten pertsonak gustura egon ziren. Guztira, 130 pertsonak parte hartu zuten (54 emakume eta 76 gizon), gehienak 26 eta 30 urte bitartekoak.

8. La Furiaren kontzertua

La Furia rap abeslari feministaren kontzertu bat antolatu zen, azaroaren 25eko Emakumeen Aurkako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Egunaren ospakizun-programazioaren baitan, hiriko Kubik aretoan, azaroaren 20an. La Furia artista ezaguna eta arrakastatsua da Gasteizko gazteen artean, eta, gainera, aurreko urteetan Libre Izan Nonahi! Estrategian hainbat lantegitako hezitzailea izan da.

Guztira, 135 pertsonak eman zuten izena kontzertuan parte hartzeko, 113 emakumek eta 22 gizonak. Horietatik 96 pertsona bertaratu ziren, 82 emakume eta 14 gizon. Parte-hartzaileak 9 eta 67 urte bitartekoak ziren.

9. "Indarkeria matxistaren aurkako musika" jardunaldia (Libre Izan Nonahi! Estrategia)

La Furia gure hiriko gazte eta nerabeen artean ospe handiko artista eta ikuspegi feministako lantegiak ematen dituen hezitzailea denez, "Indarkeria matxistaren aurkako musika" mahai-ingurua antolatu zen Goiuri jauregian azaroaren 21ean, azaroaren 25a ospatzeko programazioaren baitan,.

Jardunaldiren helburua parte hartzaileei tresnak ematea izan zen indarkeria matxista eta musikaren erabilera gizartea eraldatzeko elementu gisa lantzeko. Hau da, helburuak izan ziren gazteek ikastea zer diren indarkeria matxistak eta kausak identifikatzea egunerokotasunean, eta musikaren bidez nola egin aurre.

Jarduera bi zatitan banatu zen:

Lehenengo zatian, La Furiak talde dinamika bat antolatu zuen bertaratutakoentzat. Dinamikan adierazi ziren indarkeria matxistak zer diren eta nola adierazten diren. Gainera, musika identifikatu zuen indarkeria matxistei aurre egiteko tresna oso baliagarri gisa..

Bigarrenik, mahai-inguru bat egin zen, La Furiak dinamizatuta. Gonbidatuak Arabako ezagunak diren hiru artista izan ziren: Ningra eta Haizea rap abeslariak eta Dupla taldeko Gary. Bigarren zati hartan, aurreko dinamikan parte-hartzaileek landutako galderak helarazi zitzaizkien artistei. Gonbidatuek artista gazte feminista gisa izandako beren prozesua, musika munduan, nolakoa izan zen kontatu zuten: oztopoak, erreferenteak, ikaskuntzak...

Gainera, bigarren zati hau streaming bidez emititu zen Youtubeko 'Libre Izan Nonahi!' kanalaren bidez.

Jardunaldira 9 neska (12 eta 25 urte bitartekoak) joan ziren , eta mahai-ingurua 52 pertsona gehiagok jarraitu zuten zuzenean.

Jarduerak amaiera eman zuten 2020an ezarritako Libre Izan Nonahi! Estrategiako jardueri.

4.1.2. XO: INDARKERIA MATXISTAREN AURREAN SALAKETA PUBLIKOA EGITEKO ETA BIKTIMEN ERREPARAZIORAKO EKINTZA KOLEKTIBOA SUSTATZEA

Azaroak 25, Emakumeen Kontrako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Eguna. Urteko sentsibilizazio-eta salaketa-kanpaina diseinatu eta martxan jartzea.

Indarkeria matxista giza eskubideen urraketa da, eta genero-desberdintasunen adierazpenik larriena; beraz, beharrezkotzat jotzen da prebentzioa eta sentsibilizazioa lantzen jarraitzea.

Horretarako, azaroaren 25ean, Emakumeen Kontrako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Egunean, Berdintasunerako Zerbitzuak hainbat jarduera antolatu zituen helburu honako hauekin:

- Emakumeen Kontrako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Eguna aldarrikatzea eta gogoratzea, indarkeria sexistaren aurkako aktibismo-, borroka- eta manifestazio-egun gisa.
- Gazteekin lan egiten duten hiriko hezkuntza-eragileekin lan eta koordinazio ildo egonkorak finkatzea.

- Herritarrak, oro har, eta gazteak, bereziki, sentsibilizatzea indarkeria matxistaren arazo larriari buruz eta berdintasunezko harremanak ezartzeko beharrari buruz.
- Espazioak sortzea, gazteek indarkeria gaitzesteko aukera izan dezaten, eta emakumeen aurkako indarkeriaren oinarri den sozializazio-eredu tradizionala modu kritikoan zalantzan jartzea, jarrera kritikoa hartuta genero-desberdintasunean oinarritutako eredu bati buruz gure identitateak taxutu dituzten balio eta elementuekin.

2020an Indarkeria matxista prebenitzeko Izan Nonahi! Udal-estrategian adierazitako jardueraz gain, Jabekuntza feministarako 2020-2021 Eskolaren programazioaren beherago adierazitako ekintzak antolatu ziren. Bestalde, herritarrei animatu zitzairen Puntu Lila indarkeria matxistaren aurkako konpromiso aktiboaren sinbolo gisa erabiltzera.

Azaroaren 25eko jarduerak honako hauek izan ziren:

- Hitzaldia: 'Libertad, deseo y consentimiento: debates feministas en torno a la violencia machista'. Hizlariak Carla Serra eta Cristina Garaizabal izan ziren, eta sexualitatearen eta indarkeriaren inguruan hitz egin zuten.
- Azaroaren 14an egindako M-FEST 'Libre Izan Nonahi' Kontzertua.
- La Furia rap abeslari feministaren kontzertua (azaroak 20).
- Jardunaldia: "Lantegia eta mahai-ingurua: indarkeria matxistaren aurkako musika" (azaroak 21).
- Autodefentsa feministarako lantegia 14-18 urteko neskenentzat, azaroaren 21ean eta 28an. Lantegia Jabekuntza feministarako Eskolaren programazioko #FeminismoMola atalaren barruan kokatu zen.
- Hitzaldia: 'Resistencia ancestral: cuerpos, afectos y rebeldía'. Hitzaldia azaroaren 24an egin zen eta Herri Handi hitzaldi zikloaren barruan dago. Hizlaria Ochy Curiel izan zen, arrazakeriaren aurkako feminismo dekoloniala, lesbofeminsita eta autonomoaren aldeko ekintzailea.
- Zineforum Entre3 (azaroak 26): «Delphine et Carole, insoumuses». Callisto McNultyk zuzendutako dokumentala. Gaia: feminismoa eta ekintza kolektiboa.

Maiatzaren 17a, Lesbo-Gay-Transfobiaren aurkako Nazioarteko Eguna. Urteko sentsibilizazio- eta salaketa-kanpaina diseinatu eta martxan jartzea.

M17ko antolaketa lanek bat egin zuen COVID-19 konfinamenduarekin, eta, ondorioz, maiatzaren 17arekin lotutako programazioa, Jabetze Feministarako 2019-2020 Eskolaren baitakoa, bertan behera utzi eta hurrengo ikasturtera atzeratu behar izan zen. Beraz, ez zen besterik geratu M17ko irudia azpimarratzea baino, zeinak, nola ez, lotura zuzena izan behar baitzuen pandemiaren ondorioz etxeetan zegoen konfinamendu-egoerarekin, non herritarrok hilabete eta erdi generaman murgilduta.

Hala, kartel digitala LGTBI auzokideak zituen eraikin bati buruzkoa izan zen (kartel nagusi bat eta bost nagusian oinarrituta). Balkoi bakoitzean pertsona edo bizikidetzaren unitate bat ikusten zen, jarrera edo rol desberdinetan, eta elkarrekin konektatuta. Kanpainaren leloa honakoa izan zen: "M17 Lesbo-Bi-Gay-Transfobiaren aurkako eguna. Ez kutsatu LGTBIfobiaz!". Balkoi batetik bandera bat zegoen zintzilik, erasoen aurkako telefonoarekin eta Gasteizko Ikusgune-LGTBIfobiaren aurkako behatokiaren logoarekin.

Bestalde, lehen aldiz, adierazpen instituzionalak [Gasteizen sexu-orientazioaren eta genero-identitatearen aurka izandako gertakariei buruzko txostena](#) aipatu zuen (2019ko maiatza-2020ko apirila), Ikusgunek egina, eta haren datu eta ondorio garrantzitsuenetako batzuk jaso zituen.

Lumagorri HAT elkarteak kudeatzen duen Ikusgune-Gasteizko LGTBIfobiaren kontrako Behatokiaren jarduerari laguntzea, elkartearen eta Gasteizko Udalaren arteko hitzarmen baten bidez.

Lankidetzaren hitzarmen baten bidez, Udalak Vitoria-Gasteizko LGTBIfobiaren aurkako Ikusgune-Behatokiaren garapena babesten du. Lumagorri HAT elkarteak kudeatzen du, eta LGTBI pertsonen aurkako diskriminazio-egoeretan eta indarkeria matxistan sentsibilizatzea, antzematea eta horien aurrean jardutea du helburu, ikerketaren, prebentzioaren eta salaketaren bidez. Hitzarmenak nabarmentzen duen bezala: "Horrek Udalak

genero-berdintasunaren arloan duen esku-hartzea hobetzen lagunduko luke, LGTBI pertsonen behar praktikoei eta interes estrategikoei arreta emanez eta berdintasun-politiken subjektua zabalduz".

Lau dira Ikusguneren helburu espezifikoak:

- Lesbiane, gayei, transexualei eta bisexualei transmititzea LGTBI+fobia ez dela inola ere onargarria, eta beti dela posible hari erantzutea.
- LGTBI+ kolektiboaren ikusgarritasuna sustatzea.
- Sareak sortzea, bai elkarteekin bai administrazioekin.
- LGTBI+ pertsonen ahalduntze soziala bultzatzea, ikuspegi feministatik eta interseksionaletik.

2020an, ekintza aipagarrienetako batzuk honako hauek izan ziren: lehenik, [Zure identitate eskubidea hautesontzien aurrean](#) eta [Hauteskunde-mahaiak osatuko dituztenentzako praktika onen gida](#) liburuxkak egitea; bigarrenik, 8 orduko lineako prestakuntza bat, Observatori Contra l'Homofobia de Catalunya abokatuekin; hirugarrenik, [Gasteizen sexu-orientazioaren eta genero-identitatearen aurka izandako gertakariei buruzko txostena](#) (2019ko maiatza-2020ko apirila) egitea; laugarrenik, Trans* Igaro elkartearen sorrera bultzatzeko prozesua; eta, azkenik, egileen eskutik hainbat liburu aurkezpen antolatzea, egun seinalatu batzuk aprobetxatuz, hala nola Ijito Herriaren Eguna, Liburuaren Eguna edo Zientziaren eta LGTBI pertsonen Eguna.

Berdintasunerako Zerbitzuak etengabe lagundu zuen hitzarmenean aurreikusitako Ikusguneren jarduera. Gainera, Zerbitzuak Ikusgune gonbidatu zuen *Gure kaleetan gorrotoari aurre egitea* saioa ematera, sexu- eta genero-aniztasunari buruzko online prestakuntza baten esparruan, UPV/EHUrekin lankidetzan antolatua. Azkenik, Ikusguneri babesa eman zion bere bideetatik zabalduz erasoan aurkako telefonoaren kartela eta hauteskunde-mahaia osatzen duten pertsonentzako jardunbide egokien gida. Hitzarmenak xedatutakoaren arabera, 2020an hiru jarraipen-batzorde egin ziren: uztailearen 10ean, urriaren 27an eta azaroaren 24an.

Lesbofobiaren eta bifobiaren kontrako sentsibilizazio-materiala egin eta hedatzea.

Lesbianen eta pertsona bisexualen errealitate espezifikoekin berri emango dugu, batez ere gazteen artean, ezagutza handiagoa sortzeko, sistema heteronormatibotik kanpo dauden orientazio sexualekiko eta genero-identitatelekiko errespetua eta eraso eta jokabide lesbofoboekiko gaitzespena sustatze aldera.

Bi ekintza horien barruan sartzen da honako material hauek egitea:

- *Lesbianismo* fanzinea. Ez gara lagunak bakarrik.
- *Normala heterosexuala izatea da* mikrobideoa
- *Bisexualidad* fanzinea. Ez da fase bat, hemen geratzeko gaude.
- *Sea quien sea, me gusta quien me gusta* mikrobideoa
- Bisexualitateari eta lesbianismoari buruzko gida pedagogikoa

Baliabide horiek egiteko, gure ustez lesbofobiari eta bifobiari aurre egiteko modurik onena bide bikoitz batetik jardutea da: batetik, aurreiritziak haustea, eta bestetik, lesbiana eta bisexual gisa identifikatzen den pertsona bakoitzaren bizi-esperientziei balioa ematea. Horregatik, jarrera lesbofobo eta bifoboaren aipamena egiten den arren, ez ditugu jarrera horiek azpimarratzen, baizik eta lesbianen eta pertsona bisexualen aldarrikapenak eta borrokak, eta gure udalerriko errealitatean gelditzen gara.

Histeria Kolektiboak bisexualitateari eta lesbianismoari buruz egindako fanzineetan, honako hauek jasotzen dira: lesbianismoa/lesbofobia eta bisexualitatea/bifobia terminoen esanahia; aipamen historiko labur bat; borrokaren aldarrikapen espezifikoak, historikoak zein gaur egungoak; ekintza lesbofobiko ohikoenak; lesbianen eta bisexualen esperientziak Gasteizen ([Desirak Plazara](#) diagnostikotik ateratakoak) Era berean, eduki interesgarrietarako loturak eskaintzen dituzte: ikerketak, telebista-saioak, komikiak, Instagrameko profilak eta udal baliabideak, hala nola Jabetze Feministarako Eskolaren hitzaldien loturak edo Udal Liburutegi Sarearen edukiak.

Al Borde films ekoiztetxeak egindako mikrobideoak 47 eta 50 segundokoak dira, hurrenez hurren. Materialei koherentzia emateko, fanzineen diseinuetan mikrobideoen fotogramak daude, eta mikrobideoetan, aldi berean, fanzineen testuak.

Gida pedagogikoak, bestalde, sexu- eta genero-aniztasuna taldean lantzeko gakoak eta ariketen bilduma eskaintzen du. Fanzineetatik sortu zen, eta haren asmoa da espazio kolektiboak dinamizatzen dituztenei eskaintzea lesbianismoari eta bisexualitateari buruz hitz egiteko zenbait tresna (ludotekak, institutuak, gazteen aisialdirako espazioak, etab.).

Baliabide horiek guztiak ikuspegi feminista eta interseksionalaren arabera diseinatuta daude, eta euskaraz zein gaztelaniaz daude eskuragarri.

Hedapen handia aurreikusten dugu, hitzaldi eta tailerren bidez, eta oraindik ere baieztatzekoa da kontzientzia hartzeko duen eragina edo potentziala.

Gasteizko Udalak etengabeko jarraipena eta hobekuntzak egitea *Indarkeria matxistaren aurrean jendaurreko erantzuna emateko protokoloari*

1.2.1.XO. atalean deskribatu dugun eta Norma Vazquezek politikariei eman zien prestakuntzaren ondoren — *Indarkeria matxistaren tratamendua. Erantzun publikoa eta komunikazio instituzionala*—, Berdintasun Zerbitzuak Erantzuna emateko Protokoloa hobetzeko proposamen bat egin zuen, Alkateak Berdintasuneko Zerbitzuko buruari eskaera egin ondoren.

Bestalde, 2020ko urrian argitaratu zen [Gasteizko Udalak Indarkeria Matxistaren arloan Kontuak Emateko Zifra eta Datuen Txostena \(2019\)](#), Gizarte Zerbitzuen Sailak, Herritarren Segurtasunak eta Berdintasun Zerbitzuak koordinaturik eginga. Erantzun publikoa emateko proposamenak kasu eta protokolo zehatzak jasotzen ditu, bai aktibazioari bai erantzunari dagokionez.

Alkatetzako Zuzendariaren eta Alkatetza Saileko Zerbitzu Koordinatzailearen ekarpenak jaso ondoren, 2021eko otsailean berdintasuneko zinegotziari aurkeztuko zaio txostena baloratu dezan. Aktibazio jakin batzuei erantzun publikoa emateko proposamena etengabe berrikusten ari den zeregina da eta talde politiko guztien adostasuna behar du.

Zifren eta datuen txostena argitaratzeari dagokionez, oso berandu argitaratu zen (2020ko urrian), baina osasun-alertaren egoerari buruzko datuak ere gehitu zitzaizkion 2019ko txostenari.

2.XE: ERAKUNDEAREN BARRUKO ETA ERAKUNDEEN ARTEKO KOORDINAZIOA HOBETZEA

4.2.1. XO: ERAKUNDEEN BARRUKO ETA ERAKUNDEEN ARTEKO KOORDINAZIO-MEKANISMOAK BERRIKUSTEA ETA INDARTZEA, INDARKERIA MATXISTARI ARRETA OSOA EMATEKO

Berrikustea, eguneratzea eta egokitzea *Etxeko eta generoko indarkeriaren biktimak diren emakumeekin esku hartzeko, horiek bideratzeko eta horien jarraipena egiteko II. udal-protokoloa, indarkeria matxistari (sexista edo LGTBIfobikoa) erantzuteko barne-protokoloa eguneratua izateko*

2010. urtean onartu zen *Etxeko indarkeriaren eta genero-indarkeriaren biktimak diren emakumeak esku hartzeko, bideratzeko eta haien jarraipena egiteko Udalaren II. Protokoloa*; hartara, kolektiboari laguntza ematean sortutako arreta-beharrei erantzuteko jarraibideak eta prozedurak bildu ziren.

Azken urteotan, indarkeria matxistaren errealitateak aurrera egin ahala, beste dokumentu batzuk onartu dira, hala nola, [Gasteizko Udalak indarkeria matxistaren aurrean erantzun publikoa emateko protokoloa](#), 2019an onartua, eta 2019ko maiatzaren 19an argitaratutako [Vitoria-Gasteizen Indarkeria matxistaren biktimak diren emakumeen memoria berreskuratzeko Proiektua](#). Azken horrek biktimen memoria berreskuratzearen inguruko hausnarketa jasotzen du.

Beraz, indarkeria matxistaren errealitatea, oro har, konplexua denez, eta lege eta araudi berriak onartu direnez, beharrezkoa izan da esku-hartzeko, bideratzeko eta jarraipena egiteko II. Udal Protokoloa birplanteatzea eta berrikustea, errealitate berrietara egokitzen dela bermatzeko, indarkeria LGTBIfobikoa arreta-fluxuetan sartzeko eta lege-aldaketetara egokitzeko.

Beraz, indarkeria matxistaren errealitatea, oro har, konplexua denez, eta lege eta araudi berriak onartu direnez, beharrezkoa izan da Etxeko eta genero indarkeriaren biktima diren emakumeekin esku hartzeko, horiek bideratzeko eta horien jarraipena egiteko II. udal-protokoloa berrikustea, eguneratzea eta egokitzea, errealitate berrietara egokitzen dela bermatzeko, arreta-fluxuetan indarkeria barnertzeko eta legealdaketetara egokitzeko.

Horrela, 2020an, barne partaidetza-prozesu bat bultzatu zen, protokoloan parte hartzen duten sailekin batera diagnostiko bat egiteko (Berdintasun Zerbitzuaren bidez Gizarte Politiken, Adinekoen eta Haurren Saila eta Alkatzaren eta Erakunde Harremanen Saila; eta Udaltzaingoaren bidez, Herritarren Segurtasunerako Saila). Era berean diagnostiko-ebaluazioa egiteko berdintasun-teknikari batentzako lanpostu bat sortzea onartu zen aurrekontuetan.

Batzorde Politikoak eta Zuzendaritza Batzordeak onartutako lan-prozesua berretsi egin zen, eta horren ondoren lan-talde bat sortu zen. Horren egunkizuna da, batetik, ebaluatzea, indarkeria sexistak, eta, bestetik, indarkeria LGBTIfobikoen aurrean sortzen den esku-hartzea eta koordinazioa.

2020an zehar datu kuantitatiboak bildu dira eta alderdi kualitatiboan aurrera egin da. Elkarrizketak egin zaizkie profesionalei, talde sozialei eta emakume biktima zein indarkeriatik bizirik irten direnei ere.

3.XE: INDARKERIA MATXISTAREN BIKTIMAK AITORTZEA ETA BEREN ERREPARAZIOARI LAGUNTZEA

4.3.1. XO: BIKTIMEN AITORTZA ETA ERREPARAZIORAKO ESKUBIDEA INDARKERIA MATXISTARI ARRETA EMATEKO UDAL-SISTEMARA SARTZEA

Indarkeria matxistaren biktimen elkarteei laguntza eta babesa ematea beharrezkotzat jotzen diren lan-prozesuetan.

Indarkeria matxistatik bizirik atera diren eta biktimen elkarteei laguntza eta sostengua ematea ez da proiektu edo jarduera zehatz batean zehaztu.

Hala ere, Sorgineneak bultzatutako barne-prozesu bat baliatu da (Etxe Feministan indarkeria matxistari aurre egiteko barne-protokolo bat egiteko prozesua, alegia) informazioa kontrastatzeko eta harreman bortitz batetik ateratzea erabaki duen emakume batek egin behar duen ibilbidean dauden beharrak eta gabeziak antzemateko. Informazio hori guztia baliagarria izan da Udalak bultzatutako Arreta emateko eta Koordinaziorako Protokoloa ebaluatzeko unean.

Barne-prozesu parte hartzaile horretan, indarkeria matxistaren biktimen eta bizirik atera diren emakumeen elkarteei deitu zitzaion, bai eta halako emakumeak biltzen dituzten beste talde batzuei ere. Ildo horretatik, Zerbitzuak Goizargirekin eta Autodefentsa Feministako Talde egonkorrarekin duen harremana azpimarratu behar da.

Halaber, telefono bidezko aholkularitza eman zitzaion Goizargiri, 2021eko dirulaguntzen deialdiari buruz zerbitzura helarazitako zalantzak argitzeko.

06

ZERBITZUAREN ORGANIGRAMA

ZERBITZUAREN ORGANIGRAMA



07

ZERBITZUAREN LABURPEN EKONOMIKOA 2020

2020ko AURREKONTUAREN KUDEAKETA. PARTIDEN LABURPENA

KONTZEPTUA	BAIMENDUTAKOA
II. KAPITULUA	
2020/0160.2381.22711 – BERDINTASUNERAKO PLANA	60.574,40
2020/0160.2381.22714 - SEXU-ETA GENERO-ANIZTASUNA AGENDA	31.868,39
2020/0160.2381.22713 - INDARKERIA MATXISTA, PREBENTZIOA ETA ARRETA	74.820,92
2020/0160.2381.22712 – JABETZE FEMINISTARAKO ESKOLA	89.927,48
IV. KAPITULUA	
2020/0160.2381.47132 - EMAKUMEEN ETXEA KUDEATZEKO DEIALDIA	150.000,00
2020/0160.2381.48120 - BEHATOKIAREN HITZARMENAREN DEIALDIA	70.000,00
VI.KAPITULUA	
2020/0160.2381.62516 - EMAKUMEEN ETXEA- EKIPAMENDUAK	9.858,84
2020/0160.2381.62925 – LGTBI BEHATOKIA	13.482,18
2020/0160.2381.62803 – LIBURUAK EROSTEA	1.883,86